



ARGIA

DONOSTIA 2016

ZER DA KULTURA ETA ZER HIRIGINTZA?



02492

9 778402 135053

**MIKEL AYESTARAN: "HERRIALDE
GUZTIAK MILA ZATI EGITEA DA
MENDEBALDEAREN ESTRATEGIA"**

**BILERETAN EUSKARA
GAILENTZEKO
ITZULPEN TEKNIKAK**

**HITZARMEN EKONOMIKOA:
GERRA ETA BAKEA GURE
SISTEMA FISKALEAN**

Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailua
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 20 Asier Blas
- 21 Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá Oihana Etxebarrieta
- 22 Imanol Alvarez



Mikel Ayestaran, 2015eko Euskal Kazetaritza sariaren irabazlea, gatazkaren muinetik Ekialde Hurbilaren berri ematen. (ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 LURRAK IRAULIKO GAITU
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA: RAMÓN ANDRÉS
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Mikel Ayestaran: "Nabilen tokietan, propagandak informazioak baino indar handiagoa du" / Sustrai Colina
- 24 | Donostia 2016. Hasi da errepresentazioa / Gorka Bereziartua Mitxelena
- 30 | Hitzarmen ekonomikoa. Zerga bilketa *casus belli* denean / Urko Apaolaza Avila
- 32 | Mali. Gatazkapean ezkutatuak giza beharrak / Iure Eizagirre
- 35 | Turismoa ez da zertan bisitarientzat soilik izan / Itsaso Zubiria Etxeberria
- 36 | Aldibereko itzulpen estrategiak euskarari eusteko / Onintza Irureta Azkune
- 42 | Musika irakaskuntzan. Tresna pedagogiko baliotsua afinatzen / Mikel Garcia Idiakes
- 46 | Cadizko FRACekin solasean: rapero atipikoak, arauak hausten / Axier Lopez

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.

Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.

Erredakzioa: Asier Arrate, Axier Lopez, Eñaut Agirrebengoa, Estitxu Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.

Produktzioa: Antza S.A.L.

Harpidetza: Iraitz Agirre.

Salmenta: Idoia Arregi, Isabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Llorente, Marijo Aiertza.

Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048.

Lapuri, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.

Interneten: www.argia.eus.

Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.

Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.

Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Gu gira buhamiak!

“Neskatilek salbatu die dantza Xiberoan”, aldarrikatu zuen Aitzindariak taldeak 2006an. Ordurako, emazteek hartua zuten maskaradetan luzaz ukatutako tokia, baina ez erabat. Izan ere, duela hamarkada bat irudikatzeko zaila izango zatekeen Sohütan, aurtengo maskaraden lehen emanaldian, hartutako irudi hau: neskak buhamearena egiten. Dantzari premiak atekak ireki zizkien emakumeei; denborak ekarri du ia rol guztietan aritzea normaltasunez.

Argazkia: Christophe de Prada



“Kultura, hirietan eraldaketa urbanistikoko handiak egiteko aitzakiazat erabiltzen du Donostia 2016k”

Donostiako Piratak

argia.eus-en ikusgai



Bergara 1936, gerra eta errepresioa

Euskal Herriak jasan zuen errepresioaren benetako dimentsioa ezeztatu zuen in-punitatean oinarritutako eredu politiko batek. Egiaren eta justiziaren alde egindako dokumentala da hau.



Nire amaren hiria

Bilboko euskal kulturgintza-ren egoeraren erradiografia, Oihana Bartra bertsolariaren eskutik.



LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Errausketaren aurkako borroka indartzeko batzarra egin dute

Lander Arbelaiz Mitxelena

@larbelaiz

Zubietako herritarren laguntza eskaerari erantzunez, han bertan batu dira urtarilaren 16an erraus planta proiektuaren aurka egiteko lanean ari diren Gipuzkoako hainbat talde eta norbanako. Guztira 70 bat lagun bildu dira, eta asmoa borroka hau berraktibatu eta gizarte jasangarriago baten alde lan egitea dela zehaztu dute. Hurrengo batzar irekia otsailaren 13rako finkatu dute.

Ondorengo talde eta mugimenduetako kideak batu dira, besteak beste: Hernanin Zero Zabor, Oñati Zero Zabor, Usurbilgo taldea, Lasarteko Aire Garbia, Tolosa Zero Zabor, Errausketaren kontrako Koordinadora,

medikuen taldea, Zero Zabor IBE, Ekologistak Martxan, Eguzki, Ernai, Irabazi...

Elkar aurkeztu ostean, bakoitzak 2016rako dituen proiektuak elkarri jakinarazi dizkiete. Manifestu bat ere irakurri dute, errauste planta bizi ereduarekin lotuz. Ondoren, hiru lantaldetan banatu dira, elkarren koordinazioa eta informazio trukea hobetu eta ekimen zehatzak prestatzen hasteko.

Bestalde, batzarrean parte hartu duen Andoaingo Ipar Haizea herri plataforma sortu berria da. Datozen asteetarako Andoaingo antolatutako bi ekitaldiren berri eman dute Ipar Haizeako kideek: otsailaren 20an “Arduraren aldeko giza katea” osatuko dute eta martxoaren 12an Osasunaren aldeko martxa burutuko.



“Salbuespen legediaren amaiera lortzeko ekarpena izan beharko luke akordioak”

PERNANDO BARRENA, 04/08 SUMARIOKO AUZIPETUA

Espainiako Auzitegi Nazionalen ohikoa ez den akordioa itxi dute 04/08 sumarioaren auzian eta ondorioz, EHAK eta ANVren izenean aritzeagatik auzipetutako 35 lagunetik inork ez du kartzelara itzuli beharko. Baina “dena da ETA” teoria berretsi behar izan dute auzipetuek, ETArekin nolabaiteko lotura izan zutela jasotzen baitu akordioak. Indarkeriarekin lotutako jarduna arbuiatu eta eragindako biktimak eta mina aitortu dituzte. **TWITTER (2016/01/13)**



EMAKUME KIROLARIAK, EGUNKARIETAN BAZTERTUTA



Emakumezkoen kirolaren presentzia eta tratamendua Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan banatzen diren egunkarietan. Datuak 2013-2014ko denboraldikoak dira eta honako egunkariei dagozkie: *Berria*, *Deia*, *Diario de Noticias de Alava*, *El Diario Vasco*, *El Correo* (Araba eta Bizkaia) *Gara*, *Mundo Deportivo*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Marca*.

ONDORIO KUALITATIBOAK

Emakume kirolariei abizenak kentzen zaizkie askotan, eta izena soilik uzten. Honek ez dio kirol arloari soilik eragiten.

Kirol berrietan, bizitza profesionala nabarmentzen zaie gizonezkoei; emakumezkoek, berriz, familia artekoa.

Estereotipoak: apaintasuna, feminitatea, fisikoaren inguruko aipamenak, paternalismoa.

Emakumezkoen garaipenak gutxiago baloratzen dira.

Ez dio axola kirolariak diren ala ez diren. Hedabide batzuetan, ohikoa da kirol informazioarekin batera biluzik edo arropa gutxiarekin dauden emakumeen argazkiak aurkitzea.

ASPIC/ Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritza



"Zer izango zatekeen Aylan txikia, heldu izatera iritsi balitz? Ipurdi-jarraitzailea Alemanian" diote Charlie Hebdo aldizkarian. Polemika piztu du Riss komikilariaren gustu txarreko txistea.

Gure emakumeak bortxatzera datoz

Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Alemaniko Kolonia herrian 516 salaketa jarri dituzte Urte Zahar gauean ehunka gizonek emakumeei egindako erasoak medio, 237 salaketa sexu erasoengatik. Hedabideek erruz informatu dute Koloniako bortxaketa "oldeaz". Iritsi al da sexu indarkeria estatu mailako gai bihurtu dela ospatzeko garaia? Ala emakumeen borroka populazioaren sektore batzuk kriminalizatze eta politika arrazistak egiteko erabiltzen diren ohiko adibide baten aurrean gaude? *Pikara Magazine* aldizkari digitalean Brigitte Vasallok, *Vienen a violar a nuestras mujeres* artikuluan azpimarra lekuz aldatu du: sexu erasoak erdigunean, eta ez erasotzailearen kolorea, klasea edo erlijioa. Ondoko lerroetan artikularen pasarte batzuk dituzue itzulita:

"Gertaera horren berezitasuna erasotzaileen balizko jatorrian fokua jarri izana da. Afrika iparraldekoak. Atzerritarak. Xehetasun hori azpimarratzea biziki kezagarria da. Tranpa da. Europa ez da bihurtu feminista Urte Berriarekin, baizik eta beti bezain arrazista izaten jarraitzen du. Jai giroan gertatzen diren sexu eraso guztiek, izan Kolonian, Cairon edo Bartzelonan, amankomunean dutena ez da erasotzaileen jatorria edo kolorea, baizik eta erasotzea sexualitatearen zati bat izan daitekeela pentsarazten dieten erakuntza. Erasotzaileak ez dira zuriak edo bel-

tzak, kristauak edo musulmanak: maskulinitate hegemonikoan eraikitako gizonak dira. Ez gehiago, ez gutxiago.

Bortxatu gaituztenak beste batzuk izan direlako aztoratu da eremu atzerakoiena. Eta gu gure gizonek baino ez gaituzte bortxatzen. Bortxaketaren kultura sasoi betean dago eta salatzen saiatze hutsak indarkeria itzela sortzen du. Parranda gauean mila gizonek emakumeak erasotzea ez da delinkuentziaren dimentsio berria: betiko dimentsioa da.

Egin duten jokoak *purplewashing* izena du: tankera faxista eta arrazistako errepresio politikei aurpegi garbiketa feminista egitea. Xenofobiari jaten eman 'gure emakumeak', 'gure homosexualak', 'gure pertsona transak' defendatzeko. Horiek bat-batean mehatxatu dituzte ar oldarkor eta LGTBI-fobikoek, zeinak gure paradisu mugez haratagotik datozen.

Arrazagatiko zapalketari arretarik jarritzen ez dion feminismoa bezain ezdeusa izango da generoa aintzat hartzen ez duen arrazakeriaren kontrako borroka. Hondamendi beraren zati dira, premiazkoak dira aliantzak. Bortxaketak salatzea ez dezaten erabili arrazakeria eraikitze, beti salatze, aukera izan dezagun, beti egunkarietan atera dadin, beti alkateek premiazko neurriak har ditzaten. Neurriek behar duten tokian eragin dezaten: ez klasean, ez arrazan, ez jatorrian. Baizik eta maskulinitate gerrero, konkistatzaile eta bortxatzailearen eraikuntzan".

EKONOMIAREN TALAIAN

Denak ez dira Ogasuna



Juan Mari Arregi

Espainiako erregearen arreba sustan erretzetik salbatu nahian dabilen Dolores Ripoll Estatuko abokatuak arrazoi zuen auzitegian handikero esan zuenean "Ogasuna denok gara" esaldia publizitate hutsa dela eta ezin zaiola "zuzenbideari aplikatu". Honakoa ere gehitu beharko luke: "Batez ere erregearen arrebari edo monarkiako kide bati dagokionean". Egia da, "Ogasuna denok gara" publizitate-slogan bat baino ez da, errealitateak hori erakusten du.

Lan egin eta euren soldatekin hileroko zergak ordaintzen dituzten langileak Ogasuna dira ordea. Estatuko diru-kutxak langile klaseak ordaindutako zergekin elikatzen dira batez ere. Diru gehiago dutenek ingeniariak fiskalaz asko dakite, baita zergak ordaintzea saihesteaz ere. Hor daude milaka milioi euro -tartean euskal herritar askoren dirua- ezkutatu dituzten paradisu fiskalak. Hor daude legalak izan arren aberatsen mesederako diren SICAVak, %1 baino ez tributatu. Hor daude sozietateen gaineko zergari iskin egiten dioten enpresak. Zerga hori ordaintzen dutenek, aldiz, %16 besterik ez dute ekartzen, %30 izan beharko lukeenean -multinazionalak %6 ordaintzen dute-. Eta hortxe daude askotan beltzean kobratu ohi duten profesional liberalak: abokatuak, notarioak, medikuak, dentistak eta abar. Horren guztiaren aurrean, erreforma fiskalek boteretsuen alde egiten dute, langileak zerga handiagoak jasan behar dituen bitartean.

Egoera hori aldatzeko, langileria- eta herritarren gehiengoaren zerbitzura egongo diren gobernuak behar dira. Kontserbadoreek, edo eskuindarrek, ez dute balio. Jakingo al dute hori egiten euren burua arrerakoi eta ezkerrekotzat dutenak? Erakutsi dezatela.

USTELKERIA HERRIALDE KATALANETAN

605 inputatu Herrialde Katalanetan



Espainiako Estatuko inputatuen %31,8 Herrialde Katalanetakoak dira



Katalunia 178 inputatu
Balear Uharteak 313 inputatu
Pais Valencio 114 inputatu



605 inputatu Herrialde Katalanetan

Prozesu judizialak



2.173 Espainiako Estatuaren irekitako prozesu judizialak

Delitu fiskalengatik berriki zigortuak



Leo Messi
53M€



Emili Cuatrecasas
5,65M€



Manuel Torrealba
10,59M€



Montserrat Caballé
508,462€

Herrialde Katalanetako kontseilari zigortuak



1980 eta 2014 artean legegintzako kontseilariak zigortuak %17,28 inputatu dituzte

Guztira 295 kontseilariak 51 inputatu dituzte

51 inputatuak

17 epaituak

8 zigortuak

Politikari indultatuak



226 politikari barkatu dituzte Administrazio Publikoaren aurkako delituengatik

2015/10/20 Itzulpena: Xabier Lopez

LLUMS i taquígrafs

Ustelkeriaren mapa Herrialde Katalanetan

KATALUNIA. Politikarien eta enpresa pribatuen arteko erlazio ustelak, diru publikoaren lapurreta, fabore politikoak, interesen salerosketa, iruzur fiskala... Ustelkeria kasuen salaketa kopuruak ez du etenik Herrialde Katalanetan. Independentziaren bidea jorratzen ari den Kataluniako Printzerriko herritarrek oso kontuan izan beharko dute ustelkeriaren aurkako txertoen garrantzia: gardentasuna eta inpunitate-eza, Estatu berriaren eraikuntzak loturarik eduki ez dezan politika instituzionala gutxi batzuen onurako bidea dela uste eta praktikara eraman dutenekin. Irudia tamaina handian ikusteko, sartu argia.eus-en.

Independentziaz galdeketa Azpeitian eta Diman

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

@eagirrebeng

2018ra bitarte ahalik eta herri galdeketa gehien egitea da Gure Esku Dagok eskuartean duen erronka. Galdeketa iragarri dituzte Azpeitian eta Diman.

Azpeitia

Ekainaren 12an egingo dute galdeketa Azpeitian, orain arte galdeketa egin duen herririk handiena. "Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?" itaunari baiezkoa edo ezezkoa erantzun beharko diote herritarrek.

Dima

Ekainaren 19an egingo dute independentziari buruzko galdeketa, Goierriko 22 herriekin batera. Gure Esku Dagoren ekimenez Alkargaz izeneko elkarteak sortu dute, galdeketa aurrera eramateko. Talde horretako kideak izango dira itaun zehatza erabakiko dutenak.

Aitzindariak

Etxarri Aranatzek, %42,7ko parte-hartzearekin, %94ak baietz erantzun zion "nahi al duzu Euskal Herri independente bateko herritarra izan?" galderari. Arrankudiagan, %61,5ak parte hartu eta %89ak erantzun zuen baietz.

POBREZIA



62

abertsenek, munduko biztanleriaren erdiak (3,5 bilioi herritarrek) adina diru daukate une hauetan, Oxfam erakundearen arabera.

7,6 trilioi dolar

inguru paradisu fiskalera dute gordeta, zergei muzin egiteko. 62 aberats horien ia erdia estatubatuarrek dira eta 17 europarrak.

DURANGALDEA AUTOGESTIORANTZ

Autogestioaz gogoetatzeko eguna antolatuta dute Durangon, urtarilaren 30ean. "Herritarren ahalduntzea dakarren eta sistemaren alternatiba izan nahi duen proiektu oro" identifikatu, elikatu eta zubiak eraikitzea da asmoa.



UNIBERTSITATEA DOAKOA TXILEN

Milaka ikasle, guraso eta eragile txiletarrek doako eta kalitatezko hezkuntza aldarrikatu dute urtetan. Borroka horren fruituak ikustear dira: marbotik aurrera unibertsitatea doakoa izatea onartu berri du Txileko Kongresuak.

Espainia, beldurraren unea



Xabier Letona

@xletona

MURRIZKETEN hodeiek gero eta burrunba handiagoarekin iragartzen dute ekaitza Espainian. 2016an egin beharreko etxeko lanak dira Europar Batasunaren hizkuntzan. Noiz eta Espainiako ekonomia “krisia gainditzeko ari denean” edo “EBn gehien hazten ari den ekonomia denean”, PPK hainbestetan gogorazi duen gisan.

Egia esan, PPren hauteskunde emaitzak lagundu nahian, botoen ostean datoz Euroguneko zaldunen ohartarazpenak, edozein dela ere gobernuak, Espainiari bere egoera garbi uztera. Pello Zubiriak joan den astean (2016-1-11) ARGIAko webgunean jakinarazi zigun 12.000 milioi euroko murrizketak doazela Espainiara 2016rako; astebete beranduago, Enric Julianak 10.000 milioi euro izango direla iragarri digu *La Vanguardia*ko bere kronikan (2016-1-17). Ekonomia lerroetan arakatuta, gero eta ugariagoak dira informazio horiek.

Beste askoren artean, Ibex 35ek argi esan du: gauza bedi PP-PSOE akordioa. Orain behinik-behin, beldurraren unea da Espainian

Kontsumorako konfiantzak animatu ei duenean ekonomia, hodei beltzen iragarpenak dakarrena ikusi beharko da. *El Blog Salmón*era jota, adibidez, en-

presariak bekaina okertzen dutela iragartzen digute. Espainiako Estatistika Institutuak diosku, enpresariei egiten zaien konfiantza inkestak azken hiru urteetako emaitza txarrenak eman ditu 2016ari begira. Klase honek muturra okertzen dutenean batez ere behar beste irabazten ari ez direlako izaten da. Beraz, nola izan errentagarriago? Azken zortzi urteetan herritarrak inoiz baino hobeto ikasi du kapitalak nagusiki arazoa nola ulertzen duen: lan erreforma, malgutasun eta prekarietate gehiago. Europako Banku Zentraleko buru Mario Draghik 2015ean behin baino gehiagotan eskatu dio lan erreforma Espainiari: laugarrena litzateke, Jose Luis Rodríguez Zapaterok egin zuen lehena eta beste bi PPK.

ESPAINIAREN ZOR PUBLIKOAZ ere gero eta gehiago hitz egiten da. 2015eko datuetan bilioi bat eurokoa litzateke zor hori, BPGaren %99,8. “*El salmón contra corriente*” blogak, esaterako, Espainiaren azken urteetako zorraren eboluzioaz datu eta analisi oso interesgarriak ematen ditu: 2016an Espainiak 200.000 milioi eurotik gorako zorra birfinantzatu beharko du eta interesek gora egiten badute edo “merkatuek”, 2012an bezala adibidez, konfiantza galtzen badute, arrisku primak dantzan jar ditzake estatuko finantzak.

PPren eta sistemaren zutoin nagusienak saiatzeko dira gizarteratzen zorra kontrolpean dagoela, baina kopuru horiekin gaur egun ez dago kontrolrik, edo hobeto esanda, zenbakiok “merkatuen” kontrolpean zaudela adierazten dizute. Urteetako burbuilaren ondorioz, Espainiaren zor pribatua larria zen krisiaren hasieran, eta zor orokorra larriagotu

besterik ez da egin: 2014aren amaieran zor guztia 4,49 bilioi eurokoa zen. Zorraren ikuspegitik, egoera larritu egin da eta barne edo kanpo ezegonkortasun txikiak ondorio larriak izan ditzake halako ekonomia batean.

ESPAINIAKO GOBERNU ERAKETA saioek aurrera egin ahala, ekonomia-aren egiazko egoeraren gero eta zantzu gehiago ateratzen ari dira egonkortasuna eta austeritatearen bruneteetatik. Europar Batasunarentzat PP-PSOE da formularik egokiena egoerari aurre egiteko eta norabide horretan presionatzen hasi da. Azken finean, Alemanian edota EBko beste hainbat estatutako formula berdintsua da, edozelako egiazko aldaketaren aurrean antidotorik indartsuena.

Hauteskundeak ere hor leudeke, ate joka, baina merkatuen begietara hauek ezer konpondu baino gaiztotu egin dezakete, gehien indartu litekeena Podemos bera baita. Hipotesi horretan, Mariano Rajoyren ibilbidea iritsi da bere amaierara seguruenik. Oraingoz, hala ere, PPK ez du iragarri gobernu osatu ezin duenik. Hala egingo balu, ondoren PSOEren txanda izango da. Inork gutxik du konfiantzarik Pedro Sanchezen izaera eta alderdi barruko bere indarrean. Alde horretatik nahiko lasai bide dira Andaluziatik PSOEren hariak mugitzen dituzten eskuak.

Ezinezkorik ez da politikan eta Portugalgo bidea ere zabalik da Espainiarako, baina gauzatzeko aukera oso gutxiarekin. Beste askoren artean, Ibex 35ak argi esan du: gauza bedi PP-PSOE akordioa. Orain behinik-behin, beldurraren unea da, Espainiak norabide okerrik har ez dezan. ■

erabaki banizkio

<<EUSKAL HERRIAREN
ETORKIZUNA
EZ DA SEKULA
ESPAINIAN ERABAKIKO,
HAN EZ BAITUTE
ERABAKITZEKO
ESKUBIDEA ONARTUKO >>

JAKINA EZETZ !!!
HORREXEGATIK
ERABAKI EGITEN
DUTE GURE ORDEZ!

<<ERABAKIAK
EUSKAL HERRIAN
HARTU BEHAR DIRA,
KONGRESUA
ERAMATEKO
GERO.>>

Pello Irizar

HERRIAK
ERABAKIZ GERO...
ZERTARAKO
BEHAR DUGU
ESPAINIAR
KONGRESUA?

OK

2016ko arriskuak: petrolio merkeegia eta mega-zorraren eztanda



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Albiste txarrekin gatoz: aurtengoa ez da errekupeazioaren urtea izanen. 2008tik bizi dugun krisia okerrera egiten ari da jauzi; Txinaren finantzen lurrikara errepikakorak eta lehengaiak –petrolioak bidenabar– hain merke egotea seinale oso txarrak dira. 2016an bigarren ez lehertu daiteke duela zortzi utzi adabakiz sendatu nahi izan zen zor itzelaren krisia.



“Kataklismoaren urtea” gerta daiteke 2016 hau. Ez du esan ekonomialari katastrofistaren batek, RBS Royal Bank of Scotlاندek abisatu die bere inbertsiogileei. Baliteke burtsek %20 arte galtzea, petrolio upela 16 dolarretaraino merkatzzen ahal da... “Saldu ahal dituzun akzio guztiak, kalitatezko bonoak salbu. Sala jendez gainezka dagoenean irteerako ateak txikiegi gertatzen dira”. Panikoaen iragarpena.

Egia da beste aditu batzuek gehiegizkotzat jo dituztela alerta horiek: Txinaren arazoak besteongan edukiko dituzten eraginetan esajeratu egin dutela, koadro orokorrean zantzu itxaropentsuak ere badirela, Alemaniak bigarren urtez segidan lortu duen hazkundera eta abar. Baina RBSren oharrok ezagutzea merezi dute asteotan “*Langabezia Espainian milioi erdi jendez urritu da*” titular nahasgarriekin gosaldut lasaitu diren euskaldunek.

2008an Lehman Brothersen hondoratzea izan zen moduan eztanda eragin zuen txinparta, finantzetako aditu askoren ustez Txina gerta daiteke 2016an zapartaraziko gaituen metxa. Iazko abuztuko hondoratzea nola edo hala moldatu zutela Pekingo gobernutik, baina urtarrit hasieran gertatutako deskalabru berriek erakusten dutela egoera ez daukatela kontrolpean.

RBSko kredituen arduradun Andrew Robertsek idatzi die bezeroei: “Txina hasi da beherakada handi batean eta hau elur-bola bilakatuko da. Akzioak eta

kredituak txit arriskutsu bihurtu dira eta gu oraintxe hasten gara berridazten azken bi urteotan kontatu diguten ipuinak ezkututzen zuen errealtatea”.

Urtea markatuko duen bigarren seinalea kredituen garestitzea izango da. Finantzen merkatuak bizirik atxikitze banku zentralak oso interes baxuan injektatu diete dirua. Baina AEBko Erreserba Federalak ekin dio, berandu eta gozo bada ere, interesen igotzeari. Ezin dira munduko finantzak betirako utzi doako kreditu ofizialari lotuta heroinomanoa debaldeko *jakoari* bezala.

Lehengaien prezioen merkatzea da hirugarren adierazgarria, petrolioarena bereziki. Petrolio harrigarriki merkatu da eta hala jarraitzeko itxura du. RBSk aurreikusi du 16 dolarretaraino apaldu daitekeela, Satandard Chartered agentziak 10 dolar aipatzen ditu... Krisiagatik eskaria jaitsi da eta saltzaileek nola edo hala esportatu nahi dute, beren ekonomientzako diru iturri nagusia delako.

Puntu honetara iritsita, irakurleak galdetu dezake: baina ez al ginen Peak Oila gainditu eta erregaiei gutxitzeko aroan sartzen ari? Edo beste hau: nola liteke orain petrolio eta lehengaien prezio merkea albiste txar izatea? Horren gakoak azaldu ditu Gail Tverberg bere *Our Finite World* blogean.

Tverberg oso ezaguna da energiaren krisiaz interesatutako jendearen artean. Ofizioz, arriskuen analisietan aditu (*actuary* ingelesez) lanetan aritu da aseguru-etxeentzako. Berak ere zalantzarik ez

du petrolioaren gailurra gainditzen ari garela, mundua bere muga fisikoetara iristen ari dela konbentzita dago, baina arriskuen aurreikuspenen berezitu izanak darama beste faktore batzuei garrantzia berezia ematera. Zorpetze mailari, funtsean, urtarritan plazaratutako “*2016: Oil Limits and the End of the Debt Supercycle*” mamitsuan azaldu duenez.

Soldatak jaitea sistemaren kalterako

Gail Tverbergek idatzia du petrolioaren gailurra gainditu denean espero genituen sintomen justu kontrakoekin egin dugula topo. Askok aipatzen baguenen petrolio eta lehengaiak eten gabe garestitzen joango zirela, gertatu da justu kontrakoa: petrolio gehiegi dago eta hura produzitzeko kosteen azpira erori dira prezioak. Antzera gertatzen da gasarekin, ikatzarekin, burdina eta beste mineralekin, eta baita elikagai askorekin ere.

Oraintxe lehengaiok benetako kosteen azpitik ari dira eskaintzen merkatuan, horien esportaziotik bizi diren ekoizleek dirua behar dutelako. Krisiaren handiagatik eskariak huts egiteaz gain geroko kontsumo aurreikuspenak ere txarrak izateak merkatzzen ditu lehengaiak. Azkenean, kostatua baino merkeago dirua galdut saldu behar diren poderioz, lehengaien industria asko joan daitezke hondora.

Ehun urteko historia eginez, hazkunde ekonomikoa beti etorri da energia kontsumoa haztearen eskutik. Ez dago



Reuters agentziarentzako Joshua Lottek egindako argazkian, Bankruptcy (kiebra) dioen grafitia AEBetako Detroitko karrika batean. Munduko ekonomia berriro hazkundearen maldan abiarazteko –Gail Tverbergen aburuz– aurkitu beharko litzateke energia iturri berri benetan merke bat, elektrizitatea ekoiztuko lukeena kilowatioko 4 xentimotan eta erregai likido bat 20 dolar baino gutxiagotan. Eta laster aurkitu gainera, gaur dauzkagun azpiegitura eta ibilgailuetan erabiltzeko moduan. Aldiz, ekonomia biziarazteko zor gehiagotan sartzea zaila dirudi: lehen egindakoak ezin ordainduz joango zaigu 2016a.

produktibitatearen hobetzerik energia gehiago gabe. Energia merke gehiago, alegia. Horrela funtzionatu zuen 1973a arte, alegia, petrolioaren produkzio kostea upeleko 20 dolarren azpitik egon zen bitartean. Baina geroztik?

Energia garestitzean bigarren mekanismoa indartu zen hazkundeari eutsi ahal izateko: zorpetzea. Ordainketa denboran atzeratzea. Tverbergekin demostratutzat dauka energiaren garestitzea eta mundu zorpetze mailaren handitzea parean gertatu direla, zor ahalmen handiagoa interes tasak apaldu ahala. Kontua da zorpetzeak bere epeak eta zikloak dauzkala. Eta hemen dago mundua zorpetze ziklo handi –*Debt Supercycle*– baten amaieran, metatutako zorrei arindu handi bat ematera derrigortua eta, aldi berean, hazkundeari arnasa emangodion energia merkerik aurkitu gabe.

Sistema ekonomikoaren osagai guztiak elkarri lotuta aztertutik, Tverbergekin uste du langile ez-elitekoen soldaten txikiagotzea dela krisi honetan beste faktore erabakigarria: “Soldata txikiagoak kobratuz, langile horiek ahalmen gutxiago dute sistemak ekoizten duen oro kontsumitzeko. Ondorioz, kontsumogaien soberakinak azaldu dira eta gero prezioz jaisten hasi. Horrek eragiten du produktuen prezioak merkatzea eta zorrengatik kiebrak ugaritzea”.

2016a honela aurreikusten du arriskuen kudeaketan adituak. Arazoak larriagotuko dira, ekonomia are gehiago geldotuko. Txinarekin batera Brasil, Hego Afrika eta Australia bezalako ekoizleak atzeraldian hondoratuko dira. Moneten arteko gerrak gogortuko.

Petrolioaren pilaketa izango da arazo nagusietakoa, biltegiek gainez egingo dute, petrolio 10 dolarretaraino jaitziko. Lehengaien eta kontsumoaren jaitzierak kiebra ugari ekarriko ditu, batik batik lehengaien ustiapenetik bizi diren enpresen artean, elektrikoak barne. Petrolioaren esportatzaletik bizi diren zenbait gobernu ere jo dezake porrota, aurrekontuak berdindu ezinik. Zorraren beste eztanda bat espero daiteke finantza sistema astinduko duena, 2008koaren pareko edo handiagoa.

Iragarpen ezkorrekin amaitzen du Gail Tverbergekin: “Ekonomia orok dauka iraupen bat, gizakiek, abereek, landareek eta ekaitzek bezala. Tamalez, gure ekonomiaren iraupenaren akaberaren lekuko izatea tokatu zaigu”. Baina lasaitu gaitezten: eredu ekonomiko baten akabera besterik ez du iragarri. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Mikel Ayestaran, kazetaria

«Nabilen tokietan, propagandak informazioak baino indar handiagoa du»

Egia omen da gerra ororen lehen biktima. Egiaaren autopsia egitera edo egia lurperatzera ote doa kazetaria frontera? Honatx arkeologia ariketa zintzo bat.



Sustrai Colina

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Gerra kazetaria, gatazketako kazetaria, nazioarteko kazetaria...

Kazetaria. Utikan etiketak eta mitoak. Lehen dinosauroa ezagutu orduko erabaki nuen ez nuela bera bezalakoa izan nahi. Kazetariak gara, ez heroiak. Ez dut kazetaririk ezagutzen frontera derrigor-tuta joan denik. *El Diario Vasco*-n postu finkoa nuen nik, baina garai hartan, *Reala Champion*era sailkatzea zen lan-bidaia bat egiteko aukera bakarra. Horregatik, egitura bat muntatzen joan ahala, lanpostu finkoari uko egin eta *freelance* hasi nintzen. Bizimodu arruntetan burutik pasatzen ez zaizkizunak ikusten dituzu gerran. Gazako azken gerran, hoteleko teilatutik bonbardaketak ikusten ari nintzela, “posible ote da?!” galdetzen nion nire buruari. *Star Wars* zen hura. Ez da kasualitatea nire destinoetarako hegazkinak hutsik joan eta beteta itzultzea. Halakoetan, ezinbestean pentsatzen duzu otsoaren ahora sartzen ari zarela. Gure lana adikzioa da, ordea. Probatzean, harrapatu egiten zaitu.

Mikel Ayestaran zela zure marka harrapatu zenuen zuk.

Hasieratik neukan garbi “Mikel Ayestaran kazetaria” produktu bat izan behar zela. Hasieratik saiatu naiz nire marka potentziatzen. Bukatu da komunikabide batekiko fideltasuna bermatzen dizun

kontratuaren garaia. Norbere buruarekiko fideltasunaren aroan gaude. Orain jendeak ez du komunikabide bat jarraitzen, pertsonak segitzen ditu. “Horri sinesten diot ala ez”, ez dago besterik. Ni betidanik izan naiz espezialistazalea. Horregatik dira nire ardatzak sinesgarritasuna eta espezialitatea. Jendeak sinestea nahi dut, ahoa zabaltzen dudanerako informazioa ikertu, galbahetik pasa eta egosi dudala pentsatzea. Ekialde Hurbila oso konplexua da, ordea. Nik hamar urte daramatzat *freelance*, eguneroko ikasten duen 10 urteko ume bat naiz, eta hori ere transmititu nahi dut.

“Utikan etiketak eta mitoak” zenioen lehen. Ekialde Hurbila ez al da etiketa bat?

Ez dakit zergatik dagoen Ekialde Hurbila hain urrun guretzat. Ez dakit zergatik biltzen ditugun hain errealtate ezberdinak etiketa bakarrean. Urtetan joan-etorrian ibiltzeak ahalbidetu dit perspektiba ez galtzea. Izan ere, dena jakingo bazenu bezala hitz egitea baino askoz zailagoa da dakizun gutxia ondo azaltzea. Ez gaitezen engaina, hemen jendeak ez du suniei, trusoei edo xiitei buruz hitz egiten, Realari buruz hitz egiten du. Hori gutxi ez eta Mendebaldeak goitik behera begiratzen dio munduari, sorbalda gainetik beti. Guk esportatu dugu demokrazia, guk esportatu ditugu

ongiaren baloreak, guk... Ekialde Hurbileko tragediekiko gutxieneko enpatia garatu badugu ere, beti iruditzen zaigu guri ezin zaigula halakorik gertatu, salbu gaudela. Ez dakigu entzuten. Kazetari asko joaten dira gatazka guneetara etxeko sofan otu zaien istorioa kontatzera. Bost axola zaie bertan gertatzen dena, bertan topatzen dutena. Gauza bera politikan. Zer egiten dute gure agintariek? Gauzak okertzean errua besteei bota, misioa bukatutzat eman eta ondoko herrialdera mugitu.

Nork mugitzen ditu *breaking news*-aren hariak?

Agendarena oso bitxia da. Gatazka batzuk beti daude lehen lerroan, beste batzuk beti itzalean. 2006tik 2011ra bitarteko nire pasaporteei erreparatuta, Pakistan, Afganistan, Irak eta Iranen nenbilen etengabe. Orain Afganistan eta Pakistan ez dira gehiago aipatzen, dena da Siria. Orain dela hamar urteko hermeroteketan, ordea, Siria ez zen existitzen! Zeinek eta nola antolatzen duen agenda hori? Ez daukat arrastorik baina agenda horren gatibu bizi naiz. Garbi dago Mendebaldearen interesak jokoan egoteak balio erantsia ematen diola gatazkari. Siriaren kasuan, Europa erasotzen duen talde armatua dagoelako han interesatzen zaigu. Noiz arduratu gara errefuxiatuez? Etxe atarian zeude-

A portrait of Mikel Ayestaran, a man with short dark hair, wearing a blue denim shirt and a grey cardigan. He is standing outdoors at night, with a blurred background of a building and warm lights. His hands are in his pockets.

Mikel Ayestaran

1975, Beasain

Kazetaria. 2005ean *El Diario Vasco*-ko erredakzioko lana utzi eta *freelance* moduan hasi zen Ekialde Hurbileko gatazken berri bertatik ematen. EiTb eta Vocentorekin iraunkorki kolaboratzen du, egun. Jerusalemen bizi da. 2015eko Euskal kazetaritza saria jaso berri du. Informazio gehiago www.mikelayestaran.com-en.



nean. Aski da AEBek edo NATOk tropak bidaltzea gatazka horrek titularrak merezi izateko. Hor ikusten da Israel AEBetako estatu bat gehiago dela. Israelen segurtasuna jokoan egote hutsa albiste da, juduen aurkako eraso oro notizi. Horregatik hartu dute 2001etik hona musulmanen aurkako berriek izugarritzeko pisua. Entzun duzu albiste positiborik musulmanen inguruan? Dena izua, dena erasoak... Galdeiozu zure buruari zerekin lotzen duzun islama. Sekulako kultura da, sekulako erlijioa, sekulako herrialdeak... baina islamofobia da nagusi. Bitartean, non daude 1970-1980ko hamarkadan egunkariak betetzen zituzten Hego Amerikako gerrak? Noiztik ez duzu Nikaraguari buruzko albiste bat irakurri? Zergatik? Ez dakit.

Breaking news-a non kazetari oldea han.

Patetikoa izatera iritsi daitekeen zirkoa da. Kazetariontzat balio du curriculumen beste gerra bat gehitu eta gure buruei onenak garena sinestarazteko, baina zertan laguntzen dio horrek bertako jendeari? Arazoa da bukatu dela modu alternatiboan ibiltzea. Gazan, bonbardaketak hastean, hiru-lau hotel jakinetan ez bazaude, bonba jausten zaizu bai ala bai. Kabul, Nazio Batuetako

jendearengandik aparte ibili nahi duzula esaten baduzu, ez zara bizirik aterako. Orain dela hamabost urte, Bushek seguruago bizi gintzen abiatu zuen terrorismoaren aurkako gerra famatuak askoz konplikatua eta arriskutsuagoa bihurtu du mundua. Orain urte batzuk, Afganistanen, bizikletaz egiten nuen lan. Ea nor ausartzen den orain. Hala, zure begiekin ikusten duzun errealitatea beti mugatua bada, pentsa gerretan. Lobbyek belarria jaten zigutela, bi kale zapalduta, kontatu genuen Irakeko gerra sektarioa. Telebistako gerra kazetariak sateliteari segi behar badio zuzenekoak egin ahal izateko, nola egingo dio uko arrasto ofizialari? Ez dago miraririk. Horregatik, oso nabarmena da gatazka gunera itzultzen diren eta itzultzen ez diren kazetarien arteko aldea. Gatazka puri-purian egon ala ez, hilabetero joaten naiz Gazara. Denborak jarraipena ahalbidetzen dizu eta jarraipenak perspektiba. Krisia hasi zenetik, ordea, ez dago jarraipenik, *breaking news*-a besterik ez. Gerrek eta hondamendi naturalek saltzen dute, horien ostekoek ez.

Zer da informazioa gerran?

Horixe da zailena, informazioa zer den eta zer ez bereiztea. Zure sentimen-

duak, zure bizipenak, kontatu dizutena, ikusi duzuna, erlijioa, makropolitika, lobbyak... Izugarri zaila da informazio puru-purua lortzea. Nabilen tokietan, propagandak informazioak baino indar handiagoa du. Esaterako, lobbyek sekulako presioa egiten dute. Israelen, egunero jarraitzen dute zure lana sare sozialen bidez eta ez daukate erreparorik komunikabideekin zuzenean harremanetan jartzeko. Twitter edo Facebook-en jarraitzaile kopuru handia duzula ikusten badute berehala hasten zaizkizu egurrean. Nik, oraingoz, ondo daramat presio hori. Babestuta sentitzen naiz, eta batez ere, badakit ez dudala nire burua saldu. Lasaitasun handia da bando baten edo bestearen alde ez zarela ari jakitea.

Beldurrik pasa duzu inoiz?

Nola ez dut beldurrik pasako? Ez naiz bereziki beldurtia, baina bonbardaketa baten erdian ikara sentitzen da. Bidaia nik antolatu, hotela nik hautatu eta arriskua nik neurtu dudanean hor nonbait, baina besteen esku jartzean beldurra airean joaten naiz. Amerikarren edo espainiarren esku nagoenero edo zer pasatzen zait burutik. Auto blindatu batean noanean, pistaren erditik, 20 ur-



teko gazte bat txofer... Ez naiz fidatzen. 40 urte eta bi umerekin bestela ikusten dira gauzak. Adibidez, Gazako azken gerratik oso ukituta atera nintzen. Umeak errukirik gabe akabatzen zituzten. Ospitalera joan eta umeak txikituta ikusten nituen egunero: besoak han, hankak hor, tripak... Egunero hori ikusteak jota uzten zaitu, behin eta berriz egiten duzu negar. Bakoitzak bere trukuak dauzka ikusten dituenak kanporatu eta barruan ez zornetzeko. Gaingitzen da, edo hori pentsatu nahi dut nik, baina badauzkat oso ukituta dauden lagunak. Nik badakit eragiten didala, baina era berean, badaikit nire lanaren parte dela, kazetaritza mota horretarako prestatu naizela, eta ezin badiot aurre egin hobe dudala kiroletara dedikatu.

Azken aldian zure lanaren parte den hitz bat: errefuxiatuak.

Erdoganek hauteskundeak galdu zituenetik hurrengo hauteskundeak egin arte milaka errefuxiatu agertu ziren Turkian. Turkiako mugak azken hamar urteetan ireki ez ziren bezala zabaltu ziren, ordua arte 15.000 dolar eta hiru hilabete irauten zituen bidaia, astebete eta 3.000 dolarreko kontua bihurtu zen. Zergatik? Ezta arrastorik ere. Zergatik zabaltu

zuen Turkiak muga? Zergatik jaitsi zituen mafiak prezioak? Zergatik eman zien Alemaniak hasieran errefuxiatuei abegi eta gero ez? Pentsa zenbat aditu eta analista dauden munduan, inork ez zuen halakorik aurreikusi. Euskal Telebistatik Mazedoniara joateko deitu zidatenean justu-justu kokatu nuen mapan. Errefuxiatuekin nola jokatzeko duen ikusita, esango nuke Europari antzeko zerbait gertatzen zaiola Siriarekin. Ez daki zer gertatzen den han, norantz mugitzen diren fronteak, zer dagoen jokoan, zeinen bandoan egon behar duen... Europak ez du oraindik ulertu ez dela uda bateko arazoa. Siriarekin jolasten ari dira, han eta hemen, errefuxiatuen tragedia handia bada handiagoa baita erbesteratuen. Irakekin egin zuten gisan, herrialdea mila zati egiten ari dira.

Hitzetik hortzera darabilzun beste izen bat: Estatu Islamikoa.

Bagdaden nengoela, itzultzailea etorri zitzaidan aztoratuta, "Mosul erori da! Mosul erori da!". "Noren eskutan?" galdetzen nion nik ezin sinetsita. "Estatu Islamista izeneko talde baten menpe". Aho bete hortz egon ginen telebistari so. Orain bi urteko hemerroteketan ez zen Estatu Islamistarik existitzen, ez zegoen

Ezkerretik eskuinera: 2015eko apirilean, Katmandun (Nepal) lurrikararen ondoren; 2011ko uztailean, erreboltariak Tripoli (Libia) askatu zuten egunean jendea ospakizunetan; 2012ko abenduan, Damaskoko (Siria) auzo aluita batean, atentatu ostean.

"Alferrik da, herrialde guztiak mila zati egitea da Mendebaldearen estrategia"

"Gazako azken gerratik oso ukituta atera nintzen. Umeak errukirik gabe akabatzen zituzten"

Emir Herririk, eta orain ez dago besterik. Berriz ere, ez analistek, ez adituek ez zuten horrelakorik aurreikusit. Inork ez zigun esan talde batek Emir Herri bat sor zezakeenik, mehatxu seriozitatez zegoenik. Inork ez. Hala ere, goizetik gauera garaitu zuten Irakeko armada, kriskitin batean jarri zuten Emir Herria zutik, eta orain euren arerioen etxean zabaltzen dute izua, etsaia Ekialde Hurbilera erakarri eta partida han jokatzeko. Ez dira zoroak, ez dira lau ume mukizu. Militar-ki sendo daude, bitartekoak dituzte, eta ederki dakite zertan ari diren. Horren aurrean Mendebaldeak zer egiten duen? Etxean bestela onargaitzak liratekeen segurtasun neurriak onartu eta Siria bonbardatzera sei hegazkin bidali. Noiz ulertuko dute horrela ez dela ezer konpontzen? Oraindik gogoan dut Afganistanera joaten hasi nintzenean, hura ez zela gerra, gatazka asimetrico bat zela errepikatzen zigula Chacon-en prentsa buruak. Horrela, nola ez du denak okerrera egingo? Desastre bat izan da dena. Gure agintariei bost axola zaie Irak edo Siria, hurrengo hauteskundeak baizik ez dituzte buruan.



Azken hitza:

Azpeitiko protokoloa

“Segurtasun protokoloek txoferrez, itzultzailez eta ohiturez aldatzeko aholkatzen dute. Nire protokoloak, ordea, Azpeitiko protokoloak dira. Beti jatetxe berdinetara joaten naiz, itzultzaileekin harreman profesionalaz haratagoko adiskidetasuna dut... Lanerako urrea balio du horrek, eta etxetik kanpo hainbeste denbora pasata, etxean bezala sentitzen laguntzen dit”.

Zuk baduzu Ekialde Hurbilarentzako soluziorik buruan?

Justizia, ez dago besterik. Israel eta Palestina arteko gatazka da konpondu beharreko lehen auzia. Nazioarteko erakunde arauak eta jarraibideak be-tearazi behar zaizkio Israeli. Gezurra da negoziatzia dela soluzioa. Gure esku dago Israel legez errespetatzea. Zergatik inposatzen da Mendebaldearen legea herrialde askotan eta ez Israelen? Musulmanek justizia existitzen dela ikusi ezean alferrik dira gure prediku guztiak. Eskuak garbi edukita soilik lortzen da sinesgarritasuna. Norbere legeak ez betetzea minbizia baita, al-dikako metastasiek gaiztotzen duten minbizia. Afganistan talibanak agintetik kentzeko eraso eta beraien partez gerra zibileko terrorista ankerrenak jar-tzen badituzu, nola sortuko duzu ezer eraikitzeko oinarri sanorik? Alferrik da, herrialde guztiak mila zati egitea da Mendebaldearen estrategia: zatitu, ha-rresiak eraiki eta momentuko interesen arabera lagun zein orekak bilatu. Ez dago ez epe luzerako estrategiarik ez lider sendorik. ■



Eman Hegoak Euskarari

Elkarrekin hegan egitean, bertigoa badoa. Hegoak astindu, airetik mugitu. Elkarrekin, hitz bat ozenago entzuten da, ehunka txoriren hegaldia bezala.

Hau da gure sinboloa, denona. Euskaraz hitz egiteko gonbidapena.


Eman hegoak euskarari.

 ARGIA
SARIAK
2016

euskarazko
**KOMU
NIKAZI
OAREN
SARIAK**
urtarrilak 29
USURBILGO ATXEGA JAUREGIAN

Kazetaritzan eta komunikazioan urtean zehar nabarmendu direnen sari banaketa jarraitzeko aukera izango da arratsaldeko 16:00etatik aurrera

argia.eus-en



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA
WWW.ATXEGAJAUREGIA.COM

EH Bilduren hauteskunde ajea

Ez ginen asko izan Hego Euskal Herrian Podemosen garaipena iragarri genuenak. Inkestetatik haratago begiratu besterik ez zegoen, hauteskunde portaeraren serie historikoek eta kanpainaren bilakaerak erakusten zuten. Hegoaldean Pablo Iglesiasen alderdiak irabazi ez balu sorpresa izango zatekeen. Antzekoa esan daiteke EH Bilduren jaitsieraz, bere emaitzarik hoberenak 2011ko espainiar hauteskundeetan lortu zituen Amaiurrekin, lau urte beranduago emaitza horren boto herena baino gehiago (116.000) galdu du.

EH Bilduk galdu dituen boto-emaile gehienak abstentziora eta Podemose-ra joan dira. Ez bozkatzeko erabakia hartu dutenen artean nagusi izan dira ENAMen nortasun eta aldarrikapen historikoekin identifikatzen direnak. Sortuk hartu duen moderazio norabidearekin atsekabetuak, espainiar hauteskundeak aprobetxatu dituzte etxean gelditzeko.

Halere, EH Bilduren boto-emaile gale-
ra handiena Podemosen mesedetan izan da. Amaiurretik alderdi morera saltoa egin dutenen artean hiru talde bereiziko nituzke. Lehenengoa, EAEko politikan bosgarren espazioa bezala definitu izan den boto-emailearen parte bat, ezkerrekoa eta erabakitze eskubidearen aldekoa. Sektore hori 2011n umezurtz geratu zen Ezker Batuaren hondoratzearengatik, horregatik ez ziren gutxi izan Amaiur babestu zutenak. Koalizio berri, fresko eta anitz bezala ikusten zen. Aldiz, lau urte beranduago EH Bildu sektore politiko homogeneoagoa bezala ikusten da. 2011n ilusioa eta aldaketaren esperantza EH Bildun bazegoen, 2015ean Madrilera joan da bosgarren espazioaren posizio *naturala* ordezkatzeko duen alderdi batekin, Podemosekin.

Bigarren taldea boto taktikoarena da. Abenduaren 20an EH Bildutik zetorren



Asier Blas

EHUKO IRAKASLEA

@AsierBlas

EH Bilduren boto-emaile galera handiena Podemosen mesedetan izan da. Amaiurretik alderdi morera saltoa egin dutenen artean hiru talde bereiziko nituzke. Lehenengoa, EAEko politikan bosgarren espazioa bezala definitu izan den boto-emailearen parte bat, ezkerrekoa eta erabakitze eskubidearen aldekoa

boto-emaile parte batek pentsatu zuen Podemos boterean egotea lagungarria izan zitekeela preso politikoen egoera hobetzeko eta normalizazio politikoa aurrera egiteko. Antzekotasun batzuk ditu hirugarren taldeak, baina ez da

pragmatismoagatik mugitzen soilik, boto-emaile ideologizatua da. Inor gutxiri eskapatzen zaio EH Bilduk bere ezker-eskuin ardatzeko posizioa moderatu egin duela era sinbolikoan. Horren aurrean, boto-emaile ezkertiar batzuek beren lehentasun ideologikoak defendatzeko modu gisa Podemosi eman diote botoa.

Iritzi sortzaile askok defendatu dute Podemosek ez duela EH Bilduk baino posizio ezkertiarra, ezker-eskuin irudia politika publikoek eta programak soilik finkatuko balute bezala. Jendartearen parte handi batek ez dio jarraipenik egiten udal politikei eta are gutxiago programa politikoei. Ezker-eskuin ardatzeko posizioa finkatzeko garrantzitsua da alderdi batek ordezkatu nahi duena. Ez da baldintza nahikoa ezkerreko politikak egitea ezkerreko irudia izateko, baina ezkerreko irudia izateko beharrezko baldintza da ezkerreko posizioak ordezkatzeko, batez ere hiru dimentsioetan: a) sinbologian (kolore gorria, kartelak, leloak, eta abar); b) diskurtsoaren lehentasunetan (nori zuzentzen zaio eta zeinen arazoak aipatzen dira, zein dira hitz klabeak (langileria, klase xeheak, herria, aberastasunaren banaketa, eraldaketa soziala...) eta abar; eta c) Politikarien profiletan (generoa, lanpostua, klase-jatorria, sinesmenak, nola aurkezten dira, transmititzen dutena eta abar).

Podemosek hauteskunde kanpainan (eta aurretik) EH Bilduk baino irudi askoz ezkertiarra landu du. Alderdi moreak errazagoa du ia ardatz bakarrean lehiatzen delako, aldiz, EH Bildu ardatz sozialaz gain nazionalen aritu behar da. Halere, orain arte ez du asmatu biak ondo uztartzen, agian bere mezu independentista luzaroan zokoratu egin duelako eta irudi ezkertiarra postmaterialismo eta postmodernismoarekin lurperatzen aritu delako. ■

Erauntsia ari du



Enrike Diez de
Ultzurrun Sagalá
ITZULTZAILEA

kusteko dago norainoko eragina izanen duen abenduaren 20ak, Nafarroan hasi berri den aldaketan. Gobernuan eta udal nagusietan 40 urtez egondakoak pozez txoratzen eta harro-harro dabilta, gogotik egin dute lana, gogotik azpijokoa, eta Nafarroako bederatzi ordezkarietatik sei lortuta, ez dute inolako asmorik amore emateko eta eutsi eginen diote, gogor eutsi ere, erauntsiari. Cordovillako egunkariaz gain, ahalegin betean ari da Nafarroako Cadena Ser irrati, itxuraz aniztasunaren habia izanik ere, bai eta nafar enpresaburu zenbaitek abiarazitako hedabide digitalak ere. Orain, diru pribatua erruz mugitzen ari da aldaketaren aurka, eta sare sozialetan jende ordaindua darabilte aldaketaren kontrako mezuzak harat-honat zabaltzeko. Funtzionario sare gotorrek ere ederki bete dute beren lana. Hitz batez, udatik hona, ederki antolatuta eta mobilizaturik dabilta, karrika hartu dute, eta eskratxeak ere egin dituzte, zorioneko erakusketaren karira. Abenduaren 20an ez zen inor ere etxean gelditu. Gainera, Bilduk eta Geroa Baik boto gehien eskuratzen dituzten herri aunitzetan jende gutxiagok bozkatu zuen, eta aldiz, UPNk eta PSNk bozka gehien lortzen dituzten eskualdeetan, parte-hartzeak gora egin zuen; hori behin eta berriz gertatu izan da hauteskundeetan, joan den maiatzean

izan ezik. Hala eta guztiz ere, baldintzarik onenetan eta haize alde ere, erregimen zaharra gogoko dutenek inoizko daturik kaxkarrenak izan dituzte hauteskunde orokor batzuetan.

Dena den, konprenigaitza da zergatik ez dioten aldaketaren aldeko indarrek aurre egiten erauntsiari, eta zergatik ez duten argi eta tinko azaldu nola aurkitu dituzten udalak eta Gobernua, kudeaketa zentzugabe eta xahutzailearen ondorioz, hau da, diru-kutxak sos pizarrik gabe; urtero, makina bat milioi bideratu beharra itzaleko bidesari eta gisakoetara; banku-finantzaketa agortua, atzendu gabe Foru Komunitatea izanik, ezin dela sosik eskuratu autonomiendako diru funtsetik... Egungo egoeraren erantzuleak, hau da, Barcina, Lourdes Goikoetxea, Iribas eta enparauak, desagertu egin dira erabat tertulia, foro, titular eta eztabaida guztietatik. Orain horien beso luzeek erraten dute zertaz hitz egin eta zer ikuspegiarekin, dela enplegu eskaintza publikoaz, dela zerga igoeraz, dela PAIz (*Programa de Aprendizaje en Inglés*), dela honetaz, dela hartaz. Bertze batzuen eskuetan dago orain ekimena. Hori errotik aldatu beharko litzateke ahalik eta lasterren; bertenaz, eraunsi gaitzak errekarra botako du aldaketa oro, den mendrena ere, hiru urte eta erdiren buruan... edo lehenago. ■

Asperdura (I)



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Aspertuta nago. Kolektibo batek erabaki bat hartzen duenean eta positiboa denean, edo hala iruditzen zaigunean, kolektiboa homogeneizatu egiten dugu, batzuetan bertan aurkitu daitezkeen berezitasun guztiak albo batera utziz (uler bedi berezitasun bezala maskulino hegemonikotik at dagoen guztia). Baina zer bait gaizki badoa, eta tartean emakumeren bat badago, gaiztakeria guztien iturburutzat joko dugu hau. Gertatu da CUPEko Anna Gabriel Sabatérekin. Non dago orain? Puta, traidorea, zikina, itsusia... deitzen ez dutenetik desagertua dela dirudi. Baina ez, politikaren erdigunean jarraitzen du. "Behar" ez dugunez ordea, berriz ere CUPen talde

izaera erakusten dugu (homogeneoa eta maskulinoa?).

Nekatuta nago. Emakumeek politikan izan behar duten tokia aldarrikatzen dugunean "Emakume batek zuzentzen egoteak ez du ezer konpontzen. Begira Thatcher eta Merkel" entzun behar izaten dugu askotan, eta aspertuta buelta erdia ematea erabakitzen dut ia beti.

Horrek, hala ere, hainbat galdera sortzen dizkit. Zergatik ditugu emakume politikari horiek buruan? Eskuineko alderdiek soilik jartzen dituztelako zerrendaburu emakumeak edo ez garelako ezkerreko horiez gogoratzen (lehen paragrafoa noa orduan berriz ere)? ■

Esnobismoa

Orain urte askotxo aspaldi desagerturiko *Anaitasuna* aldizkarian *Snobismoa* izeneko artikulutxo bat argitaratu nuen. Ingalaterrako Bradford hirian eginiko egonaldi baretetik itzuli berria nintzen. Hiri nahiko txikia zen Bradford, eta, bizitza kultural handirik ez zeukanez, antolatzen zen ia edozertara hurbiltzen nintzen. Behin, ospe handiko musikaria omen zen Peter Tosh-en kontzertu batera bertaratu, eta entzundako musikak liluratu egin ninduen. Haiek globalizaziorik eta Internetik gabeko garaiak ziren, eta Euskal Herrian –hegoaldean bederen– ez genituen ezagutzen ez Tosh jauna ezta reggae musika bera ere. Etxeretatutakoan, pozarren erakutsi nizkien lagunei erositako Toshen diskoak, eta kontzertuarena kontatu. Bada, den-denek erantzun zidaten aho batez musika hura kaka hutsa zela, ez zutela batere gustuko alegia. Handik gutxira hasi ziren musika mota hori irratietan-eta jartzten, eta denek maite zituzten Bob Marley, Eddy Grant eta baita ditzosozko Peter Tosh ere!

Egunotan gogoratu naiz artikulua hartaz. Badakit jakin gertakizunak erabat desberdinak direla, baina nik nahiko antzekotasuna aurkitzen diet. Euskaldun atipikoa bide naiz, eta futbola



Imanol Alvarez

IRAKASLEA

Maiz joaten naizen antzoki bateko arduradunei behin baino gehiagotan iradoki diet talde horietako baten bat kontratatzea, batez ere jaietarako; baina alferrik

gustatu beharrean antzerkia nahiago, eta ardo beltzaren orde txinpartaduna gurago... Aitak berak esan ohi zidan ezin nintzela benetako euskalduna izan beltza eta futbola (batez ere Athletic) maitatu barik. Hori gutxi ez, eta Talia-ren disziplinen artetik betidanik gehien erakarri nauena kabareta, music-halla eta batez ere garai batean omnipresen-

te zen errebista musikala dira. Oraindik ditut gogoan barraketan egoten ziren antzoki karpadun ibiltari haie-tako kartelak, edota ikastetxe ondoan zegoen auzo-antzoki batera etortzen ziren hirugarren mailako konpainienak: miresten nituen. Hain nuen handia zaletasuna, ezen *Anaitasuna* bertan eta baita *Eginen* ere hainbat erreportaje argitaratu baintuen mundu horretaz. Egun ia desagertu da hori guztia, baina oraindik gelditzen dira azken mohikanoak, konpainia eta artista gutxi batzuk herriz herri euren ikuskizunekin joaten direnak, eta ikuskizunetako batzuk oso duinak izaten dira.

Maiz joaten naizen antzoki bateko arduradunei behin baino gehiagotan iradoki diet talde horietako baten bat kontratatzea, batez ere jaietarako; baina alferrik. Euren ezjakintasunean modaz pasatutzat daukate, edota zerbait *kasposo* eta frankistarekin identifikatzen dute nonbait, bereziki *errebista* hitza. Lehengoan, aldiz, ikusi nuen antzoki horretako programazioan music-hall estiloko ikuskizun bat iragartzen dutela. Hori sorpresa! Baina, jakina, titulua ingelesez dago: *Las Vegas Show*. A! Hori ja beste gauza bat!

Esnob ez dakit, baina *paleto* bai.

Paleto hutsak gara!. ■

ARABAKO BERTSO KADRILLA 2016 ARTEKO A

GORBEIALDEKO TOPAKETA IZARRA

URTARRILAK 23, LARUNBATA

12:00etan BERTSOTLOIA
Frontoia tabernatik hasita

14:30ean BAZKARIA
(12€) Behekoiturri elkartearen izena emateko
665700097, 615739255

16:30ean BERTSO-ERRONKAK
Behekoiturri elkartearen

www.bertsozale.eus/araba

BERTSOLAHARIAK LATEAK URKABUSTAIK

ELEXURU TA 4 ARAMAIO

BOSTIBASTA LEGUTIO

4 OINSTAN POTO MAGIA

EZ JATZU GUSTABIHER ARAMAIO


EGIZU, EGIOZU, ASTERO BERRITZEN DEN OPARIA EREIN KAZETARITZA INDEPENDENTEA

HARPIDETU:

ARGIA ASTERO, HILEAN 12 € BAINO EZ.

ARGIA HAMABOSTERO, HILEAN 7 € BAINO GUTXIAGO

ARGIA HILERO, HILEAN 4 € BAINO GUTXIAGO



943 371545

HARPIDE@ARGIA.EUS

WWW.ARGIA.EUS/HARPIDETZA



DONOSTIA
2016

KULTURA KONTSENTSUA ETA DUDAK

Despistatueneztat notizia:
2016an gaude, urtea eta ebentoa
gurutzatzen diren lekuan, Donostiak
ofizialki Europako Kultur Hiriburu
titulua jantzi duen denbora
tartean. Bide zaila egin du orain
arte, alderdien arteko botere-lehia
medio; eta herri mugimendu
batzuk egitasmoa auzitan jartzen
hasiak dira. Erretratu hau egin diogu
proiektuari abiatu den momentuan.



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria



Urtarrilaren 19tik 20rako gauerdian
Donostiako Konstituzio plazan juntatu
dira XIX. mendeko militarrez jantzitako
emakume eta gizonak, erlojuak 00:00
ordua eman bezain pronto danborrak
astintzeko prest; eta haiekin batera,
danborrez armaturik hauek ere, su-
kaldariz jantzitako beste jende batzuk,
ejertzito burrunbatsu bat; eta Sanfermi-

netakoaren aldean zibilizatuagoa diru-
dien publikoa, publiko asko, emozio be-
reziz, edo agian pixka bat edanda, baina
nolanahi konpostura guztiz galdu gabe,
urtero nobedade handirik gabe erre-
pikatzen diren Raimundo Sarriegiren
doinuekin hiriko egun handia ospatzen.
24 ordu berezi izango dira donostia-
rrentzat. Eta europarrentzat? Arrazoi



Alderdien artean sortu dituen ika-mikak gorabehera, Donostiako partidu nagusien artean bakar batek ere ez du auzitan jarri Kultur Hiriburua bere osotasunean. Argazkian, 2014an aurreko legegintzaldiko udal ordezkariak egin zuten agerraldia.

duzu Mariano: saltsaren erdian nola jokatatu asmatu ezinda dabilen *giri* horrek ez du lekuz kanpo dagoenaren itxurarik eman nahi: mugikorra patrikatik atera du. Argazki bat, bi, zer arraio, lagunei bidaltzeko hemengo zarataren lagin bat ere bai, bere buruaren bideo bat grabatzeari ekin dio jendetzaren artean, “crazy” eta “awesome” batzuk esanez.

Ni han izan nintzen Donostia Europako Kultur Hiriburu izaten hasi zen momentuan, nik esan dezaket zuzenean ikusi nuela nola danborrez kolpekatu zuten, Sarriegiren konposizioez gain, Miguel Ríosen pieza bat –ala Beethoven zen? Karajan? – Europar Batasunaren banderak mastaren puntan dantza egiten zuen bitartean.

Himno europarra jotzea azken momentuan hitzartu dute agintariek festaren protagonistekin, baina erlojuaren kontra lan egitea ez da nobedadea Donostia 2016ri buruz ari baldin bagara. Bulegoan ari den pertsona batek azaldu duenez, gauzak asko aldatu dira maiatzaren 24ko hauteskundeek utzi zuten konposizio instituzional berriaren on-

doren. “Langile kopurua bikoiztu egin da ekainetik hona, erritmo oso azkarrean ari gara lanean eta ondo iritsiko gara inauguraziora. Lehen nahita moteldu ziren gauzak orain hasi dira funtzionatzen”. Moteltze horren esplikazioa aurreko legegintzaldian Gipuzkoako politikaren ia alor guztiak zipriztindu zituen eredu-talkan bilatu behar da: Kultur Hiriburuaren fundazioaren patronatua lau erakundek osatzen dute eta bi Bilduren esku (Aldundia eta Udala), eta beste biak (Jaurilaritza eta Espainiako Kultura ministerioa) EAJren eta PPren artean banatuta, mahaiaren auskalo zein tiraderatan galdu zen bizikidetzaren kultura.

Botoek “konpondu” dute dena

Hauteskundeeek Donostian eta Gipuzkoan EAJri agintea eman ondoren, EH Bildu proiektutik kanpo utzi eta jeltzaileek PSEko Ernesto Gascori 2016ko patronatuen Udalaren ordezkarietako bat izaten laga ostean hasi da ziaboga, bai beharrezko pertsonala kontratatzeko, baita finantzazoiari dagokionez ere. Axularri obra bat inspiratzeko moduko luzamendutan aritu eta gero, agintari berriek makila hartu ostean egitasmoa pagatzeko prest agertu dira hainbat enpresa handi. Abendua: programazio ofiziala aurkezteko Madrilen egindako ekitaldi batean, Telefónicak dirua jarriko duela iragarri du Pablo Berastegui 2016ko zuzendariak. Urtarrila: Biziz eta Itsasfest proiektuei emandako 300.000 euroko laguntzarekin eta 262.000 euroko kostua daukan udaletxerako argi-instalazio batekin, Iberdrola proiektuaren bigarren babesle garrantzitsuena bilakatu da.

Baina iazko urriaren 29ko egunkaritan agertu zen albiste batek eta ondoren ekarri zuen sokak esplikatzaren dute hoberen zergatik orain proiektuak babesle ekonomikoak lortu dituen eta zergatik lehen ez. Mikrofonoen aurrean jarri da Berastegui, Eneko Goia Donostiako alkatearekin eta Xabier Iturbe Kutxako presidentarekin –kargu horretarako 2014an EAJk proposatua–: 500.000 euroko laguntza emango dio banku fundazioak Kultur Hiriburuari, ekimenaren babesle orokor gisa. Horretaz aparte egingo dituen ekarpenak zenbatuta, milioi eta erdi euroraino igotzen da kontua Kutxaren arabera.

Iturbek beste zerbait ere esan du. Esan du Juan Karlos Izagirrek alkate zenean ez ziola behin ere deitu ezta eskaintzarik



egin 2016aren babesle izateko. Azaroan dator Izagirreraren erantzuna Facebook bidez: Kutxarekin lau urtean izandako bileren edukia errepasatuz, salatu du banku fundazioak Udalarik eskatu ziola babes ofizialeko etxebizitza batzuk libre gisa saldu ahal izateko kalifikazioa alda zezatela; gogora ekarri dio Tabakalera proiektuan Kutxak nola atzeratu zituen bere ordainketak, Kutxabankekin irabaziak zeuzkala publiko egiten zuen arren; eta Udalak finantza erakundearekin egindako deiak eta bilera bat ere aipatu ditu, etxegabetze kasu bat zela-eta

» Kortxoenea gaztetxea eraitsi zutenetik 2016ak proiektatzen zuen irudi neutroa zalantzan jartzen hasi dira zenbait eragile

UDA

Uda gau bateko ametsa: William Shakespeare hil zenetik 400 urte pasa dira. Ekainaren 21etik uztailaren 24ra bitartean, bere lan adierazgarrienetako baten eszenatoki bihurtuko da Cristina Enea parkea: *Uda-gau bateko ametsa*.

Glad is the day: Le Bukowski eta Dabadaba aretoek sortu zuten proiektu hau, alegia, musika independentearen eta undergrounden tokiko bi eragile nagusietakoek. Abuztuaren 12an, Egia auzoa Donostiako uda eta kultura egitarauan txertatuko du.

**MARTXOA**

Altzoko haundia: martxoaren 20an estreinatuko dute Donostian operak, musikak eta txotxongiloek bat egingo duten ikuskizuna. Nestor Basterretxearen txotxongiloak, Koldo Izagirreraren liburuxka eta David Azurzaen musika.



Stop War musika jaialdia: martxoaren 25etik 27ra. Bob Geldof, Gose, Nick Lowe, Anari... batuko ditu festivalak.

URRIA

Antzerkigintza berriak: Urrian eta azaroan. Deialdi honen helburua da idazketa dramatiko propioa sustatzea, ahots eta testu berriekin.

**ABENDUA**

Feministaldia: 2016ko abenduaren 14tik 17ra bitartean egingo da jaialdiaren XI. edizioa. Konferentziak, mahai-inguruak, tailerrak, proiektzioak, kontzertuak, performanceak...

Europako Hizkuntza Aniztasunaren

Goi Bilera: Donostian gauzatuko da gizarte zibilaren gidaritzapean aurrera eramandako prozesu bat; berdintasuna zein aniztasunaren errespetua bilatzeko neurri eraginkorrek proposatuko dituen prozesua.

AZAROA

Txekhov vs. Shakespeare: Idazle europarrek literaturari, gatazkei eta idazleen egitekoari buruzko gutunak trukatu dituzte. Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Luisa Etxenike, Laura Mintegi, Arantxa Urretabizkaia, Fernando Aramburu eta Angel Erro izango dira komunitateen, kontaketen eta literatur praktiken arteko gutun bidezko elkarriketa elikatuko dutenak.

dezake horrek, baina segur aski Bilduk lau urtez proiektuaren gidaritza eduki izanak apaldu egin ditu printzipioz aurka egon zitezkeen sektore batzuk-.

2015aren hondarrean Kortxoenea gaztetxea behin betiko eraitsi zutenetik, hori bai, Donostia 2016k proiektatzen zuen irudi neutroa zalantzan jartzen hasi dira zenbait eragile. Azaroaren 7an kulturagune okupatua eraitsi izana salatzeko egin zen manifestazioaren pankartan "Dono\$tia 2016: kapitalar-en kultura" irakur zitekeen. Urtarrilaren 23an, Donostiako Piratek "herri kulturaren aldeko brindisa" egingo dute. Proiektuarekin kritiko direnen elkargune izan daiteke.

"Bulegoko langileak beren lanarekin konprometitzen dira, ez Udalak egiten duen guztiarekin", dio Easoko egoitzan lan egiten duen lagun batek auzi horretaz galdetuta. Antzeko jarrera dute 2016ko beste hainbat langilek ere eta desalojoaren ondoren publikoki adieraztea erabaki zuten, Bulebarreko kioskoan "Kortxoenea bizirik" ziote karteekin agertuta. Xabi Paya egitasmoaren zuzendari kulturalak ere distantzia jarri zuen gaztetxearen kontrako operazioarekin: "Fundazioak publiko egin zuen bere jardueratik kanpo dagoela eraisketa eta espero dugula Fundazioaren eta proiektuaren balioekin bat, Udalaren eta gaztetxeko kideen arteko elkarriketek aurrera egitea. Hori bai, Xabi Paya sortzaile gisa, ezinbestean penaz ikusi behar dut edozein motatako kulturagune eraistea. Hala ikusten dut. Neurri berean konbentzitu nago hainbat kultur mugimendu Donostian elkarrekin bizi daitezkeela".

Donostia-Marseilla-Donostia

"Kultura hitza aipatzen dizutenean dena irentsi behar duzu, aura ia erlijiosoa dauka, ukiezina. Faxistak bakarrik jartzen dira kulturaren kontra" dio Alessi Dell'Umbria historialariak *La fête (est finie)* dokumentalean, mota honetako proiektuekin kritiko agertzea zinen zaila den azaldu nahian. Nicolas Burlaudek zuzendutako lan horrek aztertzen ditu Marseillari Europako Kultur Hiriburu izateak eragin zizkion ondorioak -hemendik gutxira euskarazko azpitoluekin ikusteko aukera izango da-; Troia-ko zaldiarekin konparatzen du filmak Kultur Hiriburua: herritarrek opari gisa hartzen duten ospakizuna, egin diezaiekeen kaltea kontuan hartu gabe.

horrelako ekintzak onartzeko prest ez zegoela adieraziz. Ez diru zuzenean Kultur Hiriburuari lotutako gertakariak bistan denez, baina babesle berriaren eta proiektuaren arteko harremana zerk baldintzatu duen ulertzen laguntzen dute.

Zalantzak gaztetxe baten hondakinetan

Bitxiene zera da: hainbeste ika-mika politiko eragin dituen Kultur Hiriburua kontsentsu-espazioa ere badela alderdi nagusientzat. Hau da, PPTik hasi eta EH Bilduraino, partidu bakar batek ere ez

du auzitan jartzen Donostia 2016, denek parte hartu dutelako proiektuan. Horrek ez du esan nahi kritikarik piztu ez duen egitasmoa denik, baina hirian jende gutxi dago %100 kontra egiteko moduan. Batetik, kritikoak izan zitezkeen kulturgintzako eragileek alde edo moldeaz Kultur Hiriburuko proiektuetan parte hartzen dutelako; eta bestetik, oposizioarako jarrera argiena erakutsi duen "2016 Desokupatu" mugimendua ez duelako lortu momentuz gainontzeko mugimendu sozialen erabateko inplikazioz -azalpen bat baino gehiago izan

Hiriburutza eraldaketa urbanistiko handien eskutik iritsi zen hara eta, dokumentalean azaltzen denez, hirigintza proiektu berriek hainbat bizilagun euren etxeetatik desplazatu zituzten. Beste batzuei, azal zurikoak ez diren gazteei bereziki, erdigunean lasai ibiltzeko aukerak asko mugatu zitzaizkien kontrol poliziala areagotzearen ondorioz. Portuan egindakoak aipamen berezia merezi du, lehen Tunisiako eta Aljeriako ontziak iristen ziren lekuan turisten kruzeroak nagusitu baitziren 2013aren ondoren. Gerra-mapa gisa deskribatzen du prozesua dokumentalak: hiriak baketutako espazioaren itxura eman behar du ranking turistikoetan igotzeko. Kalea errepresentazio espazio bihurtzen da, ez herriak bere burua berrasmazten duen leku bat. Transformazio horretara egokitzen ez diren pertsonak ez dira existitzen. Literalki: Marseillako alkatea ikusten dugu merkatalgune baten inaugurazioan. “Proiektu honen kontra zeudenak ez ditut ikusten” dio ozenki mikrofonotik.

Hiri diferenteak dira noski Marseilla eta Donostia. Kultur Hiriburuen proiektuak ere bai. Baina gauza batean egiten dute bat: turista izeneko subjektuari –ezagutzen duzue, Konstituzio plazan ikusi dugu lehentxeago– ematen dioten garrantzian. Ugaztun hori: Donostian egon arren eguzkitako betaurrekoak kentzen ez dituen, argazki kamera edo zein momentutan dispartzeko prest daraman eta mapan sinalatutako gauzak ikusi bitartean, etxetik kanpo dagoenez, denetik kontsumitzeko premia daukan animalia ehizatzeke beita gisa erabiltzen dira Kultur Hiriburua bezalakoak. Eraitza onak ematen ditu, Arantza Tapia Eusko Jaurlaritzako Eko-

nomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailburuak Twitter bidez iazko abenduan zabalduko informazioari erreparatuta: “EEBBetako (sic) bidaia-gida garrantzitsuenak Donostia aukeratu du 2016rako gomendatutako jomugen zerrendan izateko”.

» Kultura eta hirigintza Donostiaren aurrerakuntzaren diskurtsopean: zenbat laguntzen die 2016ak operazio urbanistikoei?

Hiria norentzat?

Kontua da behin etorrita kabituko ote diren. Edo, zehatzago, haiek kabituko ahal izateko hiria nola ari den aldatzen. Xabier Arberas Donostiako Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak kideak Berrian publikatutako artikulu batean (*Parte Zaharra, atsedean hartzen inoiz uzten ez zaion auzoa*) zein egoeratan dauden salatu zuen: “Ostalaritzako 210 establezimendu daude auzoan. Hau da, 3,45 taberna 100 biztanleko, edo ia taberna bat 25 biztanleko”. Terrazen erruz espazio publikoa okupatzea eta erabilera pribatua ematea, soinu kutsadura edo mugitzeko zailtasunak aipatzen ditu eta kontuan hartzeko moduko problemak dira biztanleriaren zahartze indize altua daukan auzo batean.

Horren ordez, Parte Zaharrera jende gehiago eramango duten neurriak hartzen ari dira Donostian: komertziorako

“ordutegi libreko” gune izendatu berri dute, alegia, asteke egun guztietan ireki ahalko dituzte dendak –aurreko legegintzaldian San Juan kaletik kairainoko tartera mugatu zen aukera hori, eta uztalean eta abuztuan bakarrik–. Prezioek ere eman dute zeresana pasa den udan: sare sozialetan asko zabaltu da lau garagardorengatik Konstituzio plazako taberna batek ordainarazitako 16 euroko kontua, zenbait donostiarrek “ostialari” espresioa zergatik erabiltzen duten esplikatu dezakeena. Gaiaz galdetuta, Mikel Ubarrechena Gipuzkoako ostalarien elkarteak buruak zera adierazi zuen Ser irrati katean: “Ez dugu helmuga turistiko merkea izan nahi, Magaluf bihurtuko ginake”. Itzulpena: Parte Zaharreko plaza enblematikoenean atzeritarren arabera jartzen dira prezioak.

2016a baino harago doan problematika da, baina galdetu liteke mota honetako ebentoei zein funtzio betetzen duten hiri baten planifikazioan. Donostiako kaia kirol portu bihurtzea ez da derrigorrez Kultur Hiriburuekin justifikatzen den zerbait, ezta Saguesen eraiki nahi duten hotela, ezta Erdialdea lur azpitik zeharkatuz eraiki nahi duten metroa ere. Baina hiriburutzak mota horretako operazioei aldapa leundu diezaieke, kultura eta hirigintza uztartuz Donostiaren aurrerakuntzaren diskurtsopean. Zaila da horrelako eztabaida publikoak planteatzea ordea: Kultur Hiriburuko Donostia osoa ordezkatzeko bokazioa dauka eta hura auzitan jartzea hiri osoaren kontra egitearen pareko zerbait bihurtzen da.

Hasi da errepresentazioa. Agian obra amaitzean hobeto ulertuko dugu zer den 2016ko kontu hau dena. ■

Bardoak 2016

nafarroako taldekako bertso ekimena

argia

www.bertsozale.eus

LEHENENGO FASEA
URTARRILAREN 22tik OTSAILAREN 7ra
(16 SAIO)

BIGARREN FASEA
OTSAILAREN 19tik MARTXOAREN 6ra
(16 SAIO)

FINALA
MARTXOAREN 19AN, ETXARRI-ARANAZKO FRONTOIAN
HIRU TALDE, BIDERATZI BERTSOLARI

2016

Urtarrilaren 30ean
Donostian

BERTSO EGUNA

12:00

SAIO MUSIKATUA

Kursaal aurreko Picachilla garagardotegian

18:00

EKITALDI NAGUSIA

Kursaaleko Areto Nagusian

21:00

AFARIA eta FESTA

Kursaalen

Antolatzaileak:



donostiakultura.com
San Sebastián. Ciudad de la cultura



kutxa
FUNDATOA



Laguntzailea:

www.bertsozale.eus

HITZARMEN EKONOMIKOA

Zerga bilketa *casus belli* denean

Mende eta Erdiko historian sarritan egon da euskal lurraldeetako egitura fiskala arautzen duen foru sistema auzitan. Kubako gerratik hasi eta Aznarren garairaino, konfrontazioaren mehatxua izan da “pakturako” faktore giltzarria.



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

Euskal finantza tresna nagusienak, EAEko kontzertu ekonomikoa eta Nafarroako hitzarmena, eztabaida politikoaren zurrumbilora ekarri dituzte zenbaitek, krisiak Espainiako araubide orokorreko erkidegoak zorretan itota dituen garaioetan. Katalunian independentistek azelegailua zapaldu orduko, estatu osoko erregimen fiskala “errebisatzeko” ziltza izan dute Espainian.

2015eko uda oso beroa izan da alde horretatik: uztailan Ogasun ministro Cristóbal Montorok gutuna bidali zien erkidego guztiei finantzazio autonomikoari buruzko datuak eguneratu zitzaizkien. Espainiako hauteskunde orokorretako aurre-kanpaina luzean ere alderdi handiek “errebisio” hori izan dute ahotan. Ciudadanos da muturra: kupoa aldatu ez ezik, hitzarmen foralak beste erkidegoetako fiskalitatearekin harmonizatzea defenditu zuen Albert Riverak. “Insolidario” eta “pribilegiatu” adjektiboak hari lodiz josi dizkiote euskal zerga-sistemari.

Baleren Bakaikoa ekonomialariak orriotan azpimarratu izan duen moduan, gezurra da hitzarmen ekonomikoa solidarioa ez denik. Estatuko Solidaritate Funtzari %6,25eko ekarpena egiten dio EAEk kupo bidez, %1,6 Nafarroak; estatuko zor erraldoiaren por-

zentaje bera ordaintzen dugu, estatuko azpiegiturak finantzatzeko ere beste horrenbeste...

1978an EAEko kontzertua negoziatu zuen Pedro Luis Uriarte Eusko Jaurlaritzako sailburu-ohi eta BBVAko bankari izandakoak, azkenaldian irmoki defendatzen dihardu hitzarmen ekonomikoa –interneten lizentzia librearekin deskargatzeko moduan jarri du 3.000 orrialdetik gorako liburua–. Bere ustez, ezinezkoa da “pribilegioa izatea zigor moduan ezarri zena”. 1876ko foruen galaraz ari da, naski, armen indarrez.


Iñigo Urkullu lehendakaria tematu da hitzarmenaren “aldebikotasuna” nabarmentzen –“kontzertu ekonomikoaren ezein aldebakarreko aldaketa marra gorria da”, esan zuen euskal etxeen azken mundu biltzarrean–. Eta bai, 1919an Espainiako Gobernuak dekretu bidez nolabaiteko izaera paktista hori aitortu zuen, baina historian barrera arakatu gero, segituan jabetuko gara egiaz krisiak, gerrak eta indarraren mehatxua izan direla tartean. Horretarako, hitzarmen ekonomikoan adituak diren Gregorio Monreal eta Roldán Jimeno historialarien *El concierto económico: génesis y evolución histórica* (Iure Vasconiae, 2009) artikulua mamitsua irakurtzea aski da.

“Herrien bakeari komeni zaio...”

Foruak oraindik bizirik zeudenean, “donatibo” bidez isilarazten zituzten Madrilgo mehatxuak. 1799an Godoyk foruak abolitu eta Koroako erregimen fiskal guztiak berdintzeko emandako hitza irentsi behar izan zuen, Ingalaterraren kontrako gerrak sorturiko finantza arazoak asetzeko Baskongadetako eta Nafarroako aldundien aparteko eskupekoa jasotzearen truk. Mendea geroago, Kubako gerrarekin gauza bera gertatu zen: kolonia hartako gatazka armatuaren larritasunak eramanda, Espainiako Gobernuak jadanik martxan zegoen hitzarmen ekonomikoaren kupoa igoarazi nahi izan zuen dirua lortzeko; azkenean “donatibo boluntario” baten bidez likidatu zuten arazoa.

Beste batzuetan alderantzizko egoera gertatu da. 1914an Crédito de la Unión Minera banku bilbotarrak *crack* egin zuen –atzerriko arrisku handiko zorra zuen erosita Gerra Handiaren atarian–, eta Bizkaiko Aldundiak probintziako “indar biziak” mobilizatu zituen, gobernuak onartu zuen arte bankuak utzitako zuloa kupoarekin estaltzea.

Aitzitik, Estatuak birritan inposatu du bere nahia armak erabilita. Halaxe egin zuen euskal lurraldeetako foruak eta berezko zerga-sistema osoa ezaba-



tzen zituen Cadizeko Konstituzioarekin. 1812an Batzar Nagusiek konstituzio berriarekiko euren errezeloak azaldu zituztenean –batez ere Bizkaian izan zen erresistentzia handiena– Frantzisko Xabier Castaños buruzagi militarra bidali zuen Cadizeko gobernu liberalak, agindu zehatza zekarrela: “Desordena horiek zapaldu eta konstituzioa zinarazi dezala”.

Joseba Agirreazkuenaga historia katedradunak esana da gerra zibil ba-koitzaren amaieran zerga-aginteak autogobernuaren eztabaida piztu izan duela. Lehen Gerra Karlistaren ondoren, 1841ean, Nafarroak hitzarmena sinatu zuen beherapenetan onartutako akordio batekin. *Semiak soldadu ta preso gurasuak / ezin pagaturikan kontrabuzi-yuak...* diote oso ezagun egin ziren Muñagorriren bertsoek. Hiru hamarkada geroago gainerako euskal lurraldeen txanda iritsi zen: Cánovas del Castillor foruak abolitu zituen behin-betiko, eta zerbitzu militarra ezartzeko eta hitzarmen ekonomikoa onartzeko prest zeuden diputazioak hatza erabilita izendatu zituen.

Cánovas del Castillor foruak indarrez abolitu eta zerga-hitzarmena onartzeko prest zeuden diputazioak hatzaz aukeratu zituen 1878an. Irudian, Angiolillo anarkistak Arrasateko Santa Ageda bainuetxean tiroz hil zuen momentua ilustratzen duen grabatua. “Hil da Cánovas, fuera Cánovas / pikaro gaizki heziya...” abestu zuen Txirrita foruzaleak.

ILUSTRAZIOA: GINÉS V. / ZUMALAKARREGI MUSEOA

1936ko gerra zibilean, berriz, Bilbo hartu eta bi egunera sinatu zuen Franco jeneralak Gipuzkoa eta Bizkaiko hitzarmenak bertan behera uzten zituen dekretua, ez ordea Arabakoa eta Nafarroakoa, gerra-zigorra zela oso agerian utziz.

German Gamazok ere “gerra” txiki bat piztu zuen 1893ko aurrekontuekin: euskal lurraldeetan Espainia osoko zerga berak ezartzea proposatu zuen Ogasun ministroak eta egitasmoari kontra eginez 120.000 sinadura jaso zituen bueltan, Aro Garaikideko lehen masa mobilizazio handizat hartu izan dena.

Gamazadan manifestazioak, altxamen-duak eta liskarrak gertatu ziren, batez ere Nafarroan, baina baita beste toki batzuetan ere –Donostian Guardia Zibilak 3 lagun hil zituen manifestarien kontra fusilak deskargatzean–. Horrek guztiak lurraldeen arteko “Lurak bat” ideia indartu zuen.

Indarkeriaren itzala eta akordioa txanpon beraren bi aldeak izan dira. Agian horregatik 1906an kontzertua berritzeko epealdia 20 urtera luzatu zuten, “herrien bakeari komeni” zitzaiola argudiatuz.

Iraganeko konfrontazioen oroimena gaur eguneko negozioetara arte egon da presente. 2001ean Aznarrek berri-tzeke zegoen hitzarmena luzatu zue-nean, *casus belli* gisa deskribatu zuen EAJ-EAren esku zegoen Eusko Jaurlaritzak. Akaso Urkulluren “marra gorria” halako abisu bat ote da? Ez dirudi ordea agintean den sektore jeltzalea bere “indar biziak” aktibatzeke tenorean denik, ez behintzat gure lan-esparruari edota hezkuntzari halako kaltea ekarri die-ten beste proiektu zentralisten aurrean izandako jokaera pattala ikusita. ■



GATAZKAPEAN EZKUTATUTAKO GIZA BEHARRAK

Komunikabideetara gutxitan ekarritako herrialdea da Mali (Afrikako ipar-mendebaldean). Nekez bertako bizimodua edo miseria azaltzeko, maizago azken urteetan izandako gatazkak azaleratzeko, iazko Bamakoko hoteleko bahiketa edo 2012ko tuaregen matxinada deiturikoa kasu. Osalde da bertan lanean diharduen euskal erakunde bakarra eta guztiak bizi izan ditu, nahiz eta bere jardunean gehiago eragin duen azpiegitura faltak bestelako gertaerek baino.



Iure Eizagirre

@lureeizagirre

“Bikote bat kontsultara dator gaixorik dagoen haurrarekin, anemia duela eta transfusio baterako inguruko herri batera eraman behar dela esan, eta hiru ordu geroago, kontsultatik irtetean, parean jarraitzen dutela ikusten duzu, haurra nola eraman ez dakitela, negarrez. Ez

dute eramateko baliabiderik, eta familiari dirua eskatuz gero, haien egoera baldintzatuko dute”. Halakoak sarritan bizi izan ditu Maite Lopezek, Osalde osasunaren aldeko erakundearen baitan garapenerako lankidetzan ari den kideak.

Erakundeak ia sei urte daramatza Malin. Ordurako Hego Amerikan lantzen zituen osasungintza garatzeko proiektuak, elkartearen sorreratik onartu baitzuten kideek osasunak ezin zuela eus-

kaldunon eskubidea soilik izan. Miseriak jotako herrialdeetara joateko premia sentitu zuten eta Malik betetzen zuen ezaugarri hori: Nazio Batuen Garapenerako Programak egindako Giza Garapenaren Indizean azken bigarren zegoen –2014koan azken hamargarren ageri da–. Haurren heriotza tasa oso altua du: bizirik jaioetako 1.000 umetatik 120 hiltzen dira urtea bete aurretik, eta nekazaritza eremuetan kopurua bikoitza da.

Herrialdeko eskualde pobreenan jarri zuen egoitza Osaldek, Koulikoro-n, eta 34 herri txikiz osatutako komuna batean garatzen ditu proiektuak, 35.000 herritarrengana helduta. “Oso konplexua da osasun garapenean asmo handiak lortzea oinarritzko gauzetatik hasi gabe, larrien dagoen eta gutxien duen jendeari eman behar zaio aukera”, azaldu du elkarteko presidente Juan Luis Uriak.

Osasuna hobetzeko azpiegiturak

Maliko egoerak behartuta hainbat lan le- rro jorratu ditu Osaldek, nahiz eta osasu- na izan duen beti abiapuntu. Arlo horre- tan, azpiegiturak hobetu eta berreraiki ditu: osasun etxe eta kirurgia unitate bana eta amatasunerako bi etxe sortu, eta zen- tro publiko bat berreraiki eta handitu. Lo- pezek honela dio: “Eraikitako zentro guz- tiek eguzki energia eta argia dituzte, lehen erditzeko ere ez zuten argirik. Ura ere ba- dago, eta lehen gaixoak artatu ondoren eskuak garbitzeko ere ez zegoen urik”.

Herritarrei sendagaiak emateko erabi- li dute aurrekontuaren zati handi bat az- ken bi urteetan, izan ere, kostuak berres- kuratzean oinarritzen da Maliko osasun sistema, beraz, dena ordaindu behar da, horrek dakartzan osasunerako muge- kin. “Haur bat gaixotzen bada, familiako buruak erabakitzen du hura medikua- rengana eraman edo ez. Ume horrekiko duen loturaren, etxeko egoeraren edo haur kopuruaren arabera erabakiko du zer egin, agian gainerako umeak jan gabe utzi beharko dituelako hura sen- dagilearengana eramateko”. Doakotasun politika ere ez ei da betetzen: Gobernuak doan eman beharko lituzke sendagaiak bost urtetik beherakoen paludismo, haurdunen paludismo eta malnutrizioa duten bost urtetik beherakoen kasuetan.

Bertan erizainak, erdi mailako tekni- kariak eta osasun eragileak prestatzen ere erabili ditu Osaldek bere baliabi- deak, hamar bat urteren buruan, Mali uzten dutenean, orain hasitako lana eze- rezean gera ez dadin.

Bizimoduak osasunean duen eragi- naren jakitun, hasiera batean osasun garapenari lotuta ez zuten lerro bat ere landu behar izan du erakundeak: ur edangarria lortzeko putzuak egitea, gaixotasun asko ur edangarri eta jana- ri faltagatik baitziren. Duela bost urte herritarren %20ak zuen ur edangarria eta gaur egun %90ak du komunitateko lekuren batean lortzeko aukera.



Irudian, emakume talde bat haurrak zaintzen, atzealdean besteek baratzeak martxan jartzeko garbitzen dituzten bitartean. Tartean jartzen dira ur putzuak eta dena garbitutakoan emakume bakoitzak bere lur saila lantzen du. Gaur egun, sei herrikkatan banatutako bi hektareako baratze eremua dute eta bertako emakume elkarteek kudeatzen dituzte baratzoek. Bakoitzean ehun eta berrehundik gora emakume artean aritzen dira.

Emakumeekin lanean

“Emakume musulmana ez zen aintzat hartzen Maliko gizartean eta hori izan da gure hirugarren lan lerroa”, azaldu du Uriak. Hasieran kosta zitzaien eurengana heltzea, baina beraien parte-hartzea eska- tu ondoren, elikagaien segurtasuna landu dute emakumeekin. Lurrak utz diezaieten herrikkako nagusiarekin –zaharrenare- kin– hitz egin eta emakumeen baratzeak jarri dituzte, sei herrikkatan banatutako bi hektareako baratze eremua, baita ka- ritearentzako –hala izena duen bertako zuhaitz mota batentzako – bi errota ere.

Osaldek ureztatzeko sistemak jarri eta ereiteko eta biltzeko moduaz hain- bat azalpen eman dizkie eta orain ber- tako emakume elkarteek kudeatzen dituzte baratzoek. Bakoitzean ehun eta berrehundik gora emakume artean ari- tzen dira eta etxe bana ere badute, bile- rak egiteko, aleak gordetzeko edo labo- rantzako tresnak biltzeko.

Emakumeen alfabetatze eta ahaldun- tzean ere aurreratu dute. 370 emakume banbareraz alfabetatu dira: irakurtzen, idazten eta oinarritzko matematikak ika- si dituzte. Osalde heldu zenerako baze- goen alfabetatutako emakume talde bat eta Bamakoko Hizkuntza Nazionaleko Institutuko irakasle batek beharrezko formazioa eman ondoren, Bamakora (hiriburura, alegia) joan ziren ziurta- giria ateratzera. Senarraren baimena behar izan zuten horretarako eta baka-

» Duela bost urte herritarren %20ak zuen ur edangarria eta gaur egun %90ak du komunitateko lekuren batean lortzeko aukera

» **JUAN LUIS URIA, OSALDE:** “Behin eta berriro eskatzen digute sendagaiak eta profesionalak eramateko Gao eta Tonbuktuko ospitaleetara, baina ezinezkoa da, gerra eta kontrol militarrek daude alde guztietan”

rra geratu zen etxean. Joandako guztiek atera zuten banbareraz alfabetatzeko ziurtagiria eta eurak arduratu dira gai- nerako emakumeei irakasteaz. “Bama- kora bakarrik joatea kontrol sozialetik askatzeko modua izan zen beraientzat, noiz itzuliko garen galdetzen didate oraindik”, aitortu du Lopezek.

Horrez gain, lidergoa lantzeko bi emakume talde eratu dira. “Ehun bat emakume batzen dira, familian, gizartean eta komunitatean dituzten arazoez eta gizartean duten presentziaz aritzeko. Emakumeen autoestimua landu da, baita arazoei aurre nola egin ere”.

Gatazka garaiak

Azken urteetan Malin izandako gertaerak ez dituzte Osalderen proiektuak gerarazi. 2012an izan zen gatazkarik gogorrena, Azawaden Nazio Askapenerako Mugimenduak (MNL) eta hasieran hauei babesa eskaini zieten zenbait islamista taldek iparraldeko Azawaden independentzia aldarrikatu eta eremuko hiri nagusiak (Gao, Kidal eta Tonbukt) menderatuta, estatu kolpe militarra izan zenean Bamakon.

Tuaregen eta islamisten arteko gatazka hasi zen gero, bigarrenak tuaregen esku zeuden lurak nahi zituztelako estatu islamista bat sortzeko. Hegoaldera hedatzen joan ziren eta arrazoi hori erabilita, atzerriko indarrek esku hartu zuten, tartean Afrika Mendebaldeko Estatuaren Ekonomia Erkidegoak eta Frantziako armadak –gertaera hauen guztien berri irakur dezakezue argia.eus/azawad kanalean–.

Lopezek eta Uriak argi dute Frantziaren esku-hartzearen atzean interes ekonomikoa zegoela. Hau idatzi zuen Lopezek garai hartan Osalderen berri-

» Frantziako armadak Maliko gatazkan esku hartzearen atzean interes ekonomikoa ikusten du Maite Lopezek: “Frantziaren helburua, besteak beste, energia nuklearrean munduko liderra den Areva enpresa frantsesaren interesak babestea da. Mali eta Nigerko uranioa ustiatzen ditu”



Ezkerreko argazkian, Osaldek kontratatutako Burkina Fasoko erizain bat erakundeak berreraikitako osasun etxean. Inguuruko osasun eragileak prestatzen ditu Osaldek, Mali uzten dutenean, orain hasitako lana ezerezean gera ez dadin. Eskuineko irudian, lau zapabost auzo eta 4.000 herritarreko herrixka bat urez hornitzeko 30.000na litroko bi ur tanga, Osaldek jarriak; eguzki energiarekin funtzionatzen dute.



paperean: “Jean Ziegler Elikagaietarako NBEko errelatore izandakoak zioen bezala, Frantziaren helburua, besteak beste, Areva enpresa frantsesaren interesak babestea da. Energia nuklearrean munduko liderra da enpresa hori eta Mali eta Nigerko uranioa ustiatzen ditu”.

Egoera latz hartan iparraldean lanean zebiltzan hainbat Gobernu Kanpoko Erakundek, Munduko Medikuek edo Gurutze Gorriak adibidez, Bamakora alde egin zuten, proiektuak bertako jendearen esku utzita. Osaldek, bere kokapenagatik normaltasunez jarraitu ahal izan zuen lanean, eta Uriak azaldu duenez, gaur egun Osalde da Malin dagoen euskal erakunde bakarra. Ordutik atzeritarrek ezin dute iparraldera joan ordea, gatazka oraindik ere bizirik dagoelako. “Harremana daukagu hemen go maliarren elkarteekin eta behin eta berriro eskatzen digute sendagaiak eta profesionalak eramateko Gao eta Tonbuktuko ospitaleetara, baina ezinezkoa da, gerra eta kontrol militarrek daude alde guztietan”, azaldu du Uriak.

Badakite hango egoera ez dela egonkorra, baina oraingoz, nahikoa da boluntarioek zenbait neurri hartzea segurtasuna bermatzeko, adibidez, gehiegi ez mugitzea, garraiobide publikoak ez erabiltzea, lagunduta joatea uneoro eta Bamakora ahalik eta gutxien hurbiltzea. Hiriburuko Radisson hotelean iaz jazo-tako bahiketaren ondoren ere, bi boluntario bidaltzeko asmoa zuen erakunde euskaldunak.

Emigrazioa irtenbide eta arazo

Gerraren ondorioz, 250.000 desplazatu baino gehiago izan dira Malin eta bertako bizi baldintzek ere emigratzea beste irtenbiderik ez diete uzten. Hori da Europako agintarien kezka, Uriak gogoratu duenez: “Frantzia, G8 eta oro har Europarentzat Malin ez zatekeen arazorik izango migrazioagatik eta interes ekonomikoengatik ez balitz. Europari ez zaio interesatzen ezegonkortasunik bere mugetatik hurbil, gatazka armatuek eta ezegonkortasun politikoak jendeak inguruko lurretara alde egitea dakarrelako. Potentzia nagusiek lehengaiak kontrolatzeko sustatutako ezegonkortasuna ez datorkio ongi Europari, ezin du gehiago”.

Horregatik, elkarteko presidentek oso garrantzitsua deritza Europak eta gainerako herrialdeek beraien politika sozialak berraztertu eta nazioarteko garapenerako dirua behar bezala banatzea. Euskal erakundeei ere luzatu die deia: “Harrigarri zaigu Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzetan Latinoamerikak proiektuen ehuneko handi bat izatea, herrialde haiek dutenean azken urteetako ahalduntze eta hazkunde ekonomiko handiena. Birtartean, Afrikarako laguntza areagotzea aurreikusi bada ere, ez dira horretan ari”.

Gose, desplazatu eta aukera krisiaren aurrean, garapenerako proiektuak laguntza humanitarioko proiektu bihurtzea aztertzen ari da Osalde, programa laburrak baina intentsiboak osasun eta elikagaien arloan. ■

TURISMOA EZ DA ZERTAN BISITARIENTZAT SOILIK IZAN



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria



COOP57

Herri eragileentzako erabilerarako ere bada Ondarroako Arrigorri. Argazkian, Coop57 banku etikoak 2015eko ekainean asteburu osoko jardunaldiak egin zitueneko irudia; bertan eratu zen Euskal Herriko Koop57 adarra.



ARRIGORRI OSTATU-JATETXEA

- **Elkartea:** Arrikoop. Kooperatiba Elkarte Txikia.
- **Kokalekua:** Ondarroa.
- **Helburua:** Turismo eskaintza desberdina lantzea herrian eta eskualdean.

Itsasoa usaintzera heltzen zara hemendik. Leku pribilegiatu batean nago oraintxe bertan, irakurle; Ondarroako Arrigorri hondartza nire magalean eta Saturraran bistaratzen dudala. Harikaitzen gainean kokatuta dagoen Alfa eraikinean nago, Arrigorri ostatu-jatetxean. Orain urtebete eskuratu zuten Ondar-Uhin Turismo Elkarteak eta Arrikoop. Kooperatiba Elkarte Txikiak erai-kinaren kudeaketarako baimena. Zazpi urtez itxita egon ostean Udalak egindako lehiaketa irekia irabazita sartu dira Arrigorriin.

Izenak berak dioten moduan, ostatu eta jatetxea da. Lehen ere hala zen, eta azken nagusiek ere horrela mantendu dute. Bertako produktuez hornitzen dituzte platerak. Harreman zuzena dute inguruko zenbait ekoizlerekin eta arrantzalerekin, eta tokiko elikagaiak dastatzen dira Arrigorriin. Ez dute horretan soilik geratu nahi, ordea. Ia 100 pertsona sartzeko moduko jantokia dauka eta 24 gela, itsasoari so. Baina bisitari-entzat ez dute otordurako eta lotarako eskaintzak bakarrik egiteko asmorik. Gunearen antolaketan jantokia eta logelak sartzeaz gain, umeen txokoa, irakurketa txokoa edo wifi eremua ere badauzka.

Inguruko historiari erreparatuz

Historiari, arrantzari edo 36ko Gerrari eta Saturrarango kartzelari lotutako

txango gidatuak ere antolatzen dituzte. Helburua da Ondarroara gerturatutako bisitari-entzako beste era bateko turismoa eskaintzea. Tokikoa eta ez zertan kontsumoari lotua.

Ondarroako ostalaritza eskaintza baino, herriko eragile ere bada. Ia ezinezkoa da isolatuta bizitzea, besteengandik guztiz banatzea, eta beharrezkoak ditugu ingurukoak. Hartu-emanerako. Arrigorriren egiteko moduek erakusten dute horretaz jakitun direla. Beste adibide bat da daukaten balio anitzeko gelaren kudeaketa. Doako erabilera eskaintzen diote gizarte eragile talde orori, beti ere espazioaren erabilera pribaturako ez den bitartean. Herriko eragileek hainbat ekintza, ekitaldi, hitzaldi, bideo-emankizun, musika saio... eskaintzeko espazio bat zabaltzen da. Horrela, gunea ez da soilik bisitari-entzako mugatzen eta herritarrak ere bere tokitxoan egiten du bertan. Ondarroako turismo-erako estrategikoa izateaz gain, herriko eragileen erabilerarako ere zabaltzen den gunea da Arrigorri.

Kudeaketarako formula kooperatiboa darabilte eta gaur egun bederatzi bazkidek osatzen dute taldea. Arrikoop kooperatiba ekonomia etiko, solidario eta eraldatzailea bultzatzen duten beste proiektu kooperatiboen ildoan kokatzen da, beti ere pertsonak jarri ekonomia-aren ardatzean eta ez alderantziz. ■

ALDIBEREKO ITZULPEN ESTRATEGIAK EUSKARARI EUSTEKO

Batzuentzat bi erdaldun eta 20 euskaldun dauden bilera ez da erdaraz egiteko arrazoia. Bergarako Aranzadi Ikastolan adibidez, Udalak utzitako aldibereko itzulpengintza tresneria erabiltzen dute, irakasleak beraiek dira itzultzaileak. Fracking Ez mugimenduak antolatutako kanpaldian FM bidezko sistema erabili zuten itzulpenak egiteko. Irati Majuelo itzultzailea da eta behin baino gehiagotan deitu diote zurrumurru bidez aldibereko itzulpenak egiteko.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Fracking Ez mugimenduak frackingaren aurkako kanpaldia antolatu zuen 2015eko uztailean. Zazpi egun hitzaldiz, tailerrez eta bestelako ekintzez josita, eta nazioarteko izaerarekin. Hizkuntza saltsa antolatu beharra zegoen. Alemaniako Fracking Ez mugimenduak ere antzeko zerbitzu prestatu nahi zuela eta Bartzelonan elkartu ziren bilera egiteko Can Masdeu etxe okupatua. Hainbat herrialdetako jendea bildu zen han eta bilera egiteko itzulpen sistemaren bat behar. Han ezagutu zuten gero Gasteizko kanpaldia ekarriko zuten sistema.

Neurogarapenean arazoak dituztenei laguntzen dien Coadi guneak antolatu zuen etxe okupatuko Babel dorrea. Bilera lekuaren ondoan FM bidez transmisioa egitea ahalbidetuko zuen tresna paratu zuten eta itzulpena behar zuen partaide bakoitzari irati aparatua bat eman zioten. Frekuentzia bakoitzean zein hizkuntzatik zein hizkuntzarako itzulpena entzungo zen azaldu, tresneria probatu, eta aurrera. Itzultzaile lanetan, denak boluntarioak. Bi gauza on antzeman zizkion Mikel Otero Fracking Ez-eko partaideak sistema hari. Batetik, bakoitzak nahi zuen edo ahal zuen hizkuntzan hitz egiteko modua izan zuen, eta bestetik, itzuli behar zenez bilerako hizketaldiak mantsoago egin ziren. Bileratik txiki hartan balio izan zuen aldibereko itzulpen moldea kanpaldian probatu behar zutela pentsatu zuten.

BlaBla komunikazio agentzia ezagutzen zuten eta hari eskatu zioten laguntza tresneria eta itzultzaileak lortzeko. Bazituen 150-200 irati adibidez. Euskal Herrian, unibertsitatean itzulpengintza ikasten ari ziren gazteak konbentzitu zituzten. Bien artean antolatuko zuten astebeterako aldibereko itzulpen zerbitzu guztia. Egutero hainbat itzulpen egin behar zirenez, panelean idazten zituzten ohar guztiak: 10:00etan euskaratik gaztelaniara eta ingelesera; 11:00etan... Hitzaldi edo tailer bakoitzaren hasieran 5-10 minutu hartzen zituzten hizkuntzen kontua antolatzeko: iratiak edo sakelako telefonoak –bigarren trankulu horrek ere balio baitu– probatu, frekuentziak bilatu... Itzultzaileak ez ziren unibertsitateko ikasleak soilik, ez ziren nahikoa, ikasketa berezirik gabeko boluntarioen beharra zegoen, eta bertako jendeak eta Europatik kanpaldian parte hartzera etorritako hainbatek lagundu zuten itzulpenak egiten.

Oteroren ustez, ez da sistema oso-oso sofistikatu, behar diren baliabideak ez dira konplexuak. Oinarrizko hiru gauza behar dira bere iritziak: FM bidez transmititzea; itzultzaile boluntario taldea; eta hitz egin behar dutenek pazientzia pixka bat izatea, aldiberekoa baita itzulpena eta astiro aritzea komeni da. Oterok onura bat nabarmendu du: “Denei esan ahal genien nahi zuten hizkuntzan hitz egin zezaketela. Euskal Herrian as-

kotan gertatzen zaiguna da euskaraz egin nahi edo ahal duenari esaten diogula ‘erdaraz egiten baduzu denek ulertuko dute...’. Uztailean jendeak eskertuko zuen nazioarteko ekintza izanda ere euskaraz lasai egiteko aukera izatea”.

Kanpaldiaz gain, Fracking Ez mugimenduak ehunka hitzaldi antolatu ditu Euskal Herrian eta iratiarena ez da aldibereko itzulpenarako erabili izan duten modu bakarra. Txutxumutxu bidez euskaratik gaztelaniara egin izaten dute; hitzaldia euskaraz eta irudi bidezko aurkezpena gaztelaniaz, edo alderantziz; hitzaldia euskaraz eta tarteka laburpen txikiak gaztelaniaz ere bai.

Zurrumurruka aritzen da Irati Majuelo

Irati Majuelok Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasketak egin berri ditu. Ingarukoek badakite eta behin baino gehiagotan eskatu diote aldibereko itzulpena egiteko. Unibertsitatean ez dute zurrumuruaren teknika –txoko batean elkar-tu eta bati edo gutxi batzuei ahopean egiten zaie itzulpena– erakusten, baina egunerokoan, batik bat herri mugimenduen jardunean, metodo merke hori erabili ohi da. Unibertsitateko batzarren batean eta Euskal Herriko Bilgune Feministak eskatuta egin izan ditu zurrumuru bidezko itzulpenak. Batzuetan momentuan bertan eskatu diote laguntza eta egoera utopikotik urrun aritu behar



2015eko uztailen, Fracking Ez mugimenduak antolatutako kanpaldian FM frekuentzia bidezko aldibereko itzulpen sistema erabili zuten.

FRACKING EZ MUGIMENDUAK UTZIA

izan du itzultzen: hizlaria edo bilerako jendea zertaz arituko den jakin gabe, terminologia gainbegiratzeko astirik gabe... Beste batzuetan etxeko lanak eginda joaten da. Esate baterako, urtarilaren 16an Bilgune Feministak antolatutako Eskola Feministan pare bat hitzalditan arituen. Aurrez eskura zuen edukia.

Majueloren ustez garrantzitsua da zurrumurruka itzuli behar zaion pertsonarekin edo pertsonekin aurrez egotea, konfiantza eremua sortzeko. Esateko adibidez, den-dena ezingo diola itzuli momentuan, baina amaieran azalpen gehiago eman ditzakeela. Zurrumurru jasoleak nola sentitzen diren galdetu diogu, ea deserosoa egiten zaien, eta haxe erantzun digu: "Deserosoa itzulpena egin behar den ala ez erabakitzea izaten da, aurrez erabaki ez eta momentuan bertan gaia mahai gainean jartzen denean. Alegia, gaztelaniaz egin, ala euskaraz egin eta itzulpena antolatu. Aurrez esan baduzu euskaraz dela eta era bateko edo besteko itzulpen siste-

ma egongo dela, ez da deserosoa". Bar tzelonan, herri mugimenduetan, zurrumurrua erabiltzen ohituta daudela dio Majuelok: "Katalana guk euskara baino gehiago erabiltzeko ohitura dute, hemen amore ematera ohituago gaude".

Aranzadi Ikastolan irakasleak itzultzaile

Bergarako Udalak aldibereko itzulpen sistema klasikoa –jardunaldi gehienetan erabiltzen dena– dauka. Aldian aldiko alokatzen zuten sistemaren arrakasta ikusita tresneria erostea erabaki zuten. 10.000 bat euro balio izan zituen. Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikari Estepan Plazaolak esan digu udalean oso gustura daudela tresnarekin, baita Aranzadi Ikastolan ere. Azken hori da urtean zehar itzulpen sistema hori gehien erabiltzen duena, urtean 30 bat aldiz. Udalak herriko eragileei tresneria doan eskaintzen die, itzultzailea norberak aurkitu behar du. Aranzadi Ikastolan adibidez, irakasleak dira itzulpenak

- » Majueloren ustez garrantzitsua da zurrumurruka itzuli behar zaion pertsonarekin aurrez egotea, konfiantza eremua sortzeko
- » Aranzadi Ikastolan adibidez, irakasleak dira itzulpenak egiten dituztenak, guraso bilerak direla, kanpotik etorritako norbaiten hitzaldia dela...

egiten dituztenak, guraso bilerak direla, kanpotik etorritako norbaiten hitzaldia dela... Plazaolaren ustez, miresgarria da irakasleek egiten duten lana, hitzaldi bat itzultzea adibidez ez baita erraza.

Bergarako Udalak 20 bat aurikularreko kaxa dauka, eta gehiago behar dituenen Ordiziako Udalarik eskatzen dizkio. Dena dela, oso gutxitan behar izaten dituzte 20 erdaldu baino gehiagorentzako aurikularrak. Sistema hori erabiltzeak, Plazaolaren iritziz, gauza bat ekarri du: "Lehen euskaraz egitea justifikatu egin behar izaten zen, gezurra dirudi baina 20ko bileran bik euskaraz ez bazekiten ele bitan egiteko beti zegoen justifikazioa. Batzuetan gaztelania hutsean egitea ere justifikatzen zen: 'Horiek ere ulertu behar dute, bietara eginda luzatu egingo da...'. Orain erdalduak esaten du 'ostrak! nigatik (edo gutxi batzuegatik) antolatzen da hau guztia!'. Horrelako sistemaren bat erabiltzen ez bada hizkuntzaren gaia ez da bisibilizatzen". ■

BABESLEA: **HONDARRIBIKO UDALA**



Hondarribia
euskaraz bizi



Errazkerietan



TESTUA ETA ARGAZKIAK:
Jakoba Errekondo

Dena atzekoz aurrera ikusten duen jendea bada. "Baratze bat egingo nuke, gustura, baina ez dut lurrik", "ikaragarriko lanak dakartza", "landarea jarri eta zer edo zer ematerako hilabeteak hari begira"... Denak egiak, baina den-denak aitzakiak. Lurrik gabekoek okupatu egiten dituzte, edo terrazan edo balkoian edo leiho koxkan edo... Gure herriko Joxe Leon ile-apaintzaileak lan-tegi aurreko espaloia mugako lur pusketatxoan baratze ederra du, alboko argazkikoa. Aurretik igarotzen naizenero harritu egiten nau; orain babak (*Vicia fava*) ditu, bortusaiek (*Ruta graveolens*), ilenek (*Calendula officinalis*) eta ez kai limoiusaindunek (*Thymus citriodorus*) lagunduta, eta ez da metro koadroa ere izango!

Lanaren aitzakiari ezikusiairena egingo diot, gero gimnasia edo kafetegiko aulkietako kuxinak lisatzera joateko tar-tea noiznahi hartzen dugu eta. Horren bueltan, hau etorri zait gogora: gaia la-burtzen eta eguna luzatzen hasi dela



ospatzeko zorionak ematea ohikoa den egunetan, oso ohikoa ez den bitartekoa bidali dit lagun batek, nekazari baten bideoa. Eskuetan pikatxoia eta aitzur zabala dituela egun melenga horietako beratu txoroari aurre egiteko arbolak landatzeko zuloak egitea bezalakorik ez dela dio. Pikatxoi kolpeka hasten da, dinbi-danba, eta hala dio, hor joaten di-rela memelokeriak.

Barazkiak landatu eta jateko unea iristerako aspertzen diren horientzat, bada erein edo landatu eta aitarene-batean mahaian izan dezakegun hamaika barazki. Uraza edo letxuga (*Lactuca sativa*), eskarola (*Cichorium endivia*), txikoria (*Cichorium intybus*) eta porru-tipula (*Allium schoenoprasum*) landatu eta hi-

labeterako jateko moduan dira; urazari lepoa moztuko diogu, baina porru-tipu-la hotz handiak etorri arte hostotxoak moztu ahala berritu eta eman eta eman arituko da. Zerbak edo azelgak (*Beta vulgaris*) landatu eta lauzpabost asterako izango ditu hosto batzuk kentzeko modukoak, ziazerbak edo espinakak (*Spinacia oleracea*) bezala; erein eta hilabete edo hilabete eta erdira, jateko moduan izango da; gainera, hostoz hosto bilduz gero, luze emango dute. Azenarioa (*Daucus carota*) erein eta hilabetera jaten has daiteke; ttiki-ttikiak dira, bai, gozoenak. Errefaua (*Raphanus sativus*) jaio eta hilabete aurretik jan, krisk-krask.

Aitzakiarik ez. Errazkerian behinik ere, ekin! ■



Negua urdina da

Negua urdina da baratzeetan. Baratzek ez dira urdintzen, baina urdina da nagusi. Porrua, aza, azalorea, arbia... Negua gozatzen diguten barazki askok kolore urdinkarak aukeratu dituzte beren burua janzteko. Itxuraz urdina osagai osasungarri askoren adierazle da: antioxidanteak eta abar. Sendabideez asko jakin gabe ere, neguan porru eta aza jende arteko ugarri jaten duenak badaki bai osasuntsu ibiliko dela...

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea · [@bizibaratzea](https://twitter.com/bizibaratzea)



KOMIKILARIAK ERREKONDOREN KONTSULTAN

“Hartuemana” hitza asmatu zuena ar harroren bat izango zen. Boterearen harrak jana izango zuen garuna. Hartu ondoren eman, hori nola liteke? Baratzean, zalantzarik gabe eman egin behar zer-bait hartu nahi izanez gero...

“Emanartua” baratzean nahi eta nahiezkoa da. Eman, ematea emankortasuna, hau da etorkizuna lotuko duena sortzea, fruituak eta barruan daramatzaten haziak, alegia. Nire iritziz, eman

“eme” hitzetik etorriko da eta hartu, harrapatu “ar” hitzetik. Baratzean, hasteko eman eta gero hartu.

Baratzea izateko bertako landareen arteko emanartu etengabeak behar dira. Zeureak ere baratze batean eginez gero alde ederrakoak izango dira. Probatu duenak badaki. Baita probatu ez duenak ere...

Jakoba Errekondo

AURKEZPEN HITZALDIAK

Hauek dira ondorengo hitzorduek:

Urtarrilak 20

Bilbo

Kafe Antzokian, 10:30etan eta 19:00etan.

Urtarrilak 27

Atxondo

Eskolan, 18:00etan, Atxondoko Ikasle eta Guraso Elkartearen eskutik.

Otsailak 9

Eibar

Eta Kitto euskara elkartearen (Urkizu kalea, 11), 19:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu

sustapena@argia.com

☎ 943 371 545

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIA n erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusitako goiko zutabearen non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

943 371 545

www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

**Zure saltokian salgai jartzeko,
jarri harremanetan gurekin.**

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

NOLA BIHURTU TRAKTOREAK SUPERAUTO



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Maranello (Modena, Italia), 1958. Ferruccio Lamborghini (1916-1993) Ferrarri fabrikara hurbildu zen eta, kirol-letako autoen zale amorratua izanik, Ferrari 250GT bat erosi zuen.

Mahastizain familia batean jaioa, Lamborghini laborarien lana errazteko nekazaritzaren mekanizazioaz kezkatzen hasi zen gaztetatik. Zeuzkan mekanika eza-gutzak baliatuz, hutsetik hasi eta punta-puntako makineria eta traktore enpresa eratu zuen denbora laburrean. Baina lanaz kanpo, traktoreak baino azkarragoak ziren ibilgailuak zituen gustuko.

Horregatik, 1958ko lehen bisita haren ondoren, Lamborghini gehiagotan joan zen Maranellora. Batetik, Ferrari gehiago erosi zituelako. Bestetik, auto horiek arazo mekanikoak zituztelako, nagusiki enbrageekin, eta konpontzera fabrikara bertara eraman behar zirelako. Ez zen hura Ferruccio Ferrarietik zeukan kexu bakarra. Auto onak iruditzen zitzaizkion, baina zaratsuegiak eta zakarregiak errepidean gustura ibiltzeko. Ibilgailuen barnealdeari zurrunezia zeritzon, eta saldu osteko zerbitzuak ere ez zuen asetzen traktore fabrikatzailea.

Antza, eragozpen horiek guztiak Enzo Ferrariri berari aurrez aurre jakinaraztea erabaki zuen Lamborghini. Eta Enzo Ferrari ez zuen kritika ondo hartu. Eztabaida horren askotariko bertsioak daude; baina bataren zein bestearen jenio bizia kontuan hartuta, ziurrenik ez zuten



Ferruccio Lamborghini, Lamborghini traktore baten gainean, marka bereko bi auto parean dituela.

hitz goxorik trukatu. “Traktore fabrikatzaile batek ez dit erakutsiko kirol autoak egiten” esan omen zion Ferrari Lamborghini, edo “ezin duzu Ferrari baten konplexutasuna ulertu”.

Lamborghini en erantzuna kirol autoak fabrikatzen hastea izan zen. Lamborghini Trattori enpresa sortu eta hamalau urtera, 1963an, Lamborghini Automobili sortu zuen. Egoitza nagusia Sant'Agata Bolognesen jarri zuen, Ferrariren egoitzatik 30 bat kilometroa.

Urte bereko Turingo Automobil Erakusketan aurkeztu zuen Lamborghini 350 GTV, markaren lehen kirol autoa. Modelo berria Ferrari baino hobea zen Ferruccio kritikakutako alderdi guztietan. Bi marken arteko lehia hasi zen auto azkarren merkatuan; zirkuituetan, ordea, ez zen lehiarik izango, sortzailea bizi artean Lamborghini

markako autoek ez zuten sekula lasterketetan parte hartu. Ferrariak errepidera egokitutako lehiaketa autoak ziren; Ferruccioenak, aldiz, berariaz errepiderako eta gidatzeaz gozatzeko luxuzko auto erosoak ziren, oso azkarrak izateaz gain.

1966an hirugarren modeloa merkaturatu zuen, *Miura* izenekoa –Lamborghini zezenketen zale amorratua zen eta, horregatik, urrezko zezena aukeratu zuen markaren ikur-. Traktoreei bezala, motorra atzeko ardatzean ipintzea bururatu zitzaion eta, hala, superdeportiboen genero berri bat abiarazi zuen.

1970eko hamarkadaren hasieran, traktoreen negozioa gainbehera hasi zenean, Lamborghini enpresa guztiak saldu zituen eta nekazaritzara itzuli zen, urte batzuk lehenago Umbrian erositako mahastietara ■



Fornikazioa: arkupean egiten dena

Fornix hitzak arku edo ganga esan nahi du latinez. Egun, garuneko eta baginak zati banari hala esaten zaie, forma hori dutelako, hain zuzen.

Antzinako Erroman prostitutak zuben, kalezuloen eta bestelako eraikinen arkupeetan bildu ohi ziren. Eta denborekin burdelei ere *fornix* esan zieten.

Jakina, arku edo bobeda horien azpian nahiz putetxe itxietan prostitutek eta bezeroek zeuzkaten harreman sexualak ezkontzaz kanpokoak ziren eta, horregatik, aurrerago, eliza katolikoak terminoa bekatzeko harremanekin lotu zuen: fornikazioa erabiltzen hasi zen jardun horiek izendatzeko. ■



OÑATIKO GAZTETXEA

ARGIA gazteena ere bada



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Oñatiko Antixena Gaztetxera sartu eta hantxe ikusi dut, barraren gainean, ARGIAren azken alea. Mastrakatu samarra dago eta poza eman dit, norbait aldizkariarekin jolasean ibilia izango zen agian eta horrek desitxuratuko zuen pixka bat, baina hainbat eskutatik pasatako itxura zuen, erabilia. Begirada pixka bat urrundu eta orduantxe lagun batek mahaitik jaiki eta *Berria* itzuli du bere tokira; barrara. Hori ere erabilgarri, eta erabilia.

Harriduraz galdetu diet ea zer egin duten bi kazeta horiek barraren ertzean, gaztetxe batean, ez nagoela horrelakoak ikustera ohitua; eta beraiek oraindik eta harrituago erantzun didate arraroa al den bada. Igual ni nabil oker, baina nire esperientzia behintzat ez da egunerokoa horrelako gune batean ARGIA astekaria topatzea.

Asanbladan hartutako erabakia da. Gazteen eguneroko biltoki da Gaztetxea, eta egunerokoan irakurtzeko zerbaite izan nahi zuten bertan. Euskaraz,

baldintza. Eta baldintza soilik ez, aukeren murriztea ere bai. Egunkari bat bai behintzat, beraz, *Berria*; eta edukiak sakonago landuko dituen aldizkariren bat ere bai... Hortik ARGIAko harpidetza egitearen hautua. Zergatik, ordea, ARGIA? Baten erantzuna: hau Xabier Letonaren artikuluen fans-a da! Barre algaraka. Bakoitzak bere gustuen arabera irakurtzen ditu, baina topatu dute beren lekutxo ARGIAren.

Gazte Asanblada ez da gune autogestionatuaren erabiltzaile bakarra. Emakume talde bat ere badabil gaztetxean, eta hauek ere badute harpidetza esanguratsurik. *Pikara Magazine* aldizkaria begiztatu dut beste txoko batean, eta emakume talde honek eskatuta iristen omen da.

Harpidetzak ere aukeratu egiten dira, modu kontziente batean, eta garenaren zerbaite ere erakutsi dezakete gure mahai-gainetan egoten diren egunkari eta aldizkariak. Antixenan egin dute hautua. ■

“Sorlekutik urrun bizitako urteotan beti izan dut ondoan, sorlekuaren berri jasotzeaz gain Euskal Herri osoko gaiak gozotasunez jarraitzeko parada eskaintzen zidalako, eta horrez gain, euskaraz, edozein gairi buruz hitz egin daitekeen froga argia delako”

Jon Garmendia Txuriya,
ARGIAkoa

Txioak, Kataluniatik



Maria Colera
@mariacolera

Jarraitu


Eskerrik asko @argia ta @AxierL-ri, "prozesuari" buruzko info ganorazko eta inpartziala eman duten EHko iturri bakarrenetakoak izateagatik



Edurne Beriain
@beriaian

Jarraitu

Gaur @argia iritsi da Bartzelonara



ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.

Musika irakaskuntzan

TRESNA PEDAGOGIKO BALIOTSUA AFINATZEN

Astean saio eskas bat baino ez diote eskaintzen Musikari ikastetxeetan, eta sarri ematen zaion eginkizun nagusia da gurasoentzat ikuskizuna antolatzea, data jakinetan. Bai, ikasgai “erosoa” izaten jarraitzen du, bigarren mailakoa, eta hala ere, a zer nolako etekin pedagogikoa Musika saioetan lortu daitekeena.



Mikel Garcia Idiakez
@mikelgi

Inoiz kantatu ez duten haurrak uste baino gehiago dira, 2-3 urterekin eskola hasten dutenean. Hala diote elkarriketatu ditugun Musika irakasleek, “eta hori oso tristea da”. Musika bizitzeko ateak zabaltzea eta kultura musikala barneratzeko lehen oinarriak jartzea dagokiela esan digute irakasleok, musika ezinbesteko arloa baiteritzote derrigorrezko hezkuntzan: “Sormena eta adierazmena lantzen dituelako –argudiatu digute–; beldurrak, lotsak eta konplexuak kentzeko lagungarria delako; pertsonaren sentiberatasuna ukitzen duelako; inguruan oso presente dugun zerbait izanik musika irakurtzen jakin behar dugulako; fisikoki, fisiologikoki, psikologikoki, emozionalki, intelektualki gizakia pizteko gaitasuna duelako... Finean, musika jorratzea pertsonentzat aberatsa eta heziketa eta garapen integralarentzat funtsezkoa delako”.

Musika entzuten jakitea, arloari lotutako nozio historiko minimoak ezagutzea, euskal kulturari lotutako egile eta musika-tresnak ikastea... eskatzen du Lehen Hezkuntzako curriculumak. Helburuak zabalak eta subjektiboak direla, eta horietara nola iritsi libre uzten dela, irakaslearen arabera alde batzuk edo besteak lantzen dituztela gehiago.

Hori esan digute Irungo Berritzegunean astero biltzen diren eskualdeko Musika irakasleek. Batzuetan bakarrik sentitzen dira euren ikastetxeetan, talde-lana botatzen dute faltan, eta horretarako ongi etortzen zaizkie asteroko bilerak, bakoitzak egindakoa partekatzeko. Leire Ormazabal, Edurne Soroa, Maribi Mariskal, Leire Otaegi, Arantxa Lasalde izan ditugu solaskide, eta alde ona ere ikusi diote curriculum malguari: beste ikasgai batzuk oso itxiak eta zurrunik diren bitartean, testuliburuari lotuak, ikaskuntza-irakaskuntza askeago, irekiago eta sortzaileago ahalbidetzen du Musika orduak.

Ikasgaiak duen okerrera argi dute denek: denbora urriegia eskaintzen zaio. Oro har, astean ordubete edo gutxiagoko saio bakarra izan ohi dute ikasleek Lehen eta Bigarren hezkuntzan, eta tarte hori ez da nahikoa kantua, instrumentuen erabilera, entzunaldiak, erritmoa, gorputz adierazpena... lantzeko. “Gainera, gizartean hedabide eta gainerakoetatik zer nolako musika kontsumitzen dugun ikusita, hezkuntzak hori dena orekatu behar du eta lan itzela da. Bestelako kultura musikala bagenu, berau elikatzea litzateke ikastetxearen zeregina, baina kontrakoa da, eta gelan bat-batean Erromantizismoko musika entzutea sekulako talka da

nerabearentzat. Angelu ugaritatik jorratu behar da musika landua, historian atzera eginez, egungoa ere jarritz, Euskal Herrikoa, ikasleek gustuko dutena... Eta musika entzun behar dute, Chopin edo Leon Bilbao edo Charlie Parker... Bestela askok ez duelako inoiz halakorik entzungo”, dio Beñat Ralla musika irakasleak.

Denbora eskasa izan eta ikasgaiaren zati bat Gabonetako, Euskararen Eguneko, urte amaierako... emankizuna prestatzera bideratu behar izaten du Musikak. Hainbat gauza lantzeko baliagarria izan daitekeen arren –Santa Agedaren bueltan herriko ondarea aztertzeko, adibidez–, ikasgaiaren bizkar geratzen diren ospakizun hauek asko baldintzatzen dute klasea, eta curriculumaren zenbait atal bazter geratzeko aukera handia dago.

Profesionaltasuna bermatzeko neurriak ere faltan botatzen ditu Rallak: egungo Magisteritza ikasketetan, gerta daiteke musikarekin harremanik izan ez duen norbait hiru urtetan musika irakasten jartzea, eta horrek mesfidantza sortzen dio, “sistemak ahalbidetzen dituelako bitartekari soil izango diren irakasleak, *play*-ari baino emango ez diotenak. Oro har hezkuntza artistikoari ematen zaion garrantzi urriaren isla da”.



Mahai eta aulkiak baztertu, espazio zabala hartu, eta gorputzaren bidez musika biziaraztea da Dalcroze erritmika metodologiaren xedea, gure gorputzak musika barneratu eta nolabait gorputzea, modu dinamiko eta ludikoan.

Entzumen aktiboa, teknologia, gorputz perkusioa eta zuzenekoak

Genioenez, irakaslearen motibazio eta inplikazioaren esku egon ohi da Musika ikasgaia, eta elkarriketatuta ditugunek ugari dute bietatik. Azken urteotan metodologia garatu egin dela, saioetan alderdi ludikoa oso presente dagoela eta ikasleen parte-hartzeak garrantzi handia hartu duela esan digute Berritzegunean bildutakoek. “Esaterako, entzumen aktiboa egiten dugu sarritan: garai batean *play-ari* eman eta musika entzuten zuten ikasleek, orain rol aktiboagoa dute, entzutearekin batera beste zerbaitekin lantzen goaz, eta gorputzez adierazten, edo instrumenturen batekin, kantatuz, paper batean margotuz, antzetzuz... Haurrek beraiek markatzen dute jarduna, inprobisazioa nagusi da, hasierako asmoa aldatzen eta moldatzen joaten garelako taldearen arabera. Ezberdina da talde bakoitza, eta talde lana, elkar-ekintza, asko lantzen dugu, orkestra bat izango bagina bezala”. Egun batean gorputz perkusioa egingo dute adibidez, gorputzaren bidez koreografia erritmikoak prestatuz eta gainerakoekin antolatuz, koordinazioa, entzumena, kontrola... lantzeko. Edo kalera aterako dira, aire libreria, talde dinamika aldatuz eta berpiztuz.

Norberaren konplexuak eta ikasleen arteko harremanak jorratzeko ere oso saio baliagarriak direla esan digute irakasleek, eta hain juxtu, adierazteko eta musikara irekitzeko zailtasun gehien dituztenak direla behar handiena dutenak, “baina hori kudeatzen jakin behar da: lotsa handia ematen diola ikusten baduzu, ez duzu bera bakarrik jarriko txirula jotzen, hirunaka jar ditzakezu, ez dadin agerian geratu, edo positiboki animatuko duzu, gaizki egiteari garrantzia kenduko diozu...”.

Baliabide teknologikoen bilakaerak eragin izugarria izan du urteotan. Ordenagailuko musikogramak, adibidez, asko erabiltzen dira (irudi bidezko partiturak, edo istorio bat osatzen dutenak), eta internetek aukera ugari eskaintzen ditu, besteak beste ikasleek eurek musika sortzeko programak. Euskaraz material gutxiago dagoela-eta, Berritzegunean bildutako irakasleek adierazi digute euskarazko edukiak sortu izan dituztela interneterako, hala nola euskal musika tresnei eta ahotsaren sailkapenari buruzko wix edo liburu interaktiboak. Teknologiaren gehiegizko erabilera arrisku-tsua dela ohartarazi digu Rallak, “musika zerbaite bizia delako eta zuzenean egiteko aukera ematen digulako; ikasleak hori

» Etxean ere haurrek –gurasoek– musika gehiago entzun dezatela, gehiago abestu, musikarekin jolastu, eta kontzertuetara joan: “Ahal den neurrian, bozgorailuetatik harago kultura zuzeneko formatuetan kontsumitu, eta ahalik eta formaturik anitzenetan”

ere hautematen du, liluratzen du. Irakasleak sinesgarritasun handia irabazten du ikasleen aurrean musikaria dela erakutsiz”. Zuzenekoa ere inportantea da Bidasoaldeko irakasleentzat: horregatik, ahotsen sailkapena lantzeko klasera lau-kote bat eramango dute (baxua, tenorea, sopranoa, kontraltoa), abesten entzun ditzaten, edo alboka eskuratu eta ikas-tetzera eramango dute, ikasleek eurek jo eta entzun dezaten. Zuzeneko emanaldien aberastasuna azpimarratu dute, eta ondorioz, ikasleentzat antolatu ohi diren

MUSIKA ESKOLAK ETA KONTSERBATORIOAK, GARAI BATEKO ZURRUNTASUNETIK URRUNTZEN

Musikaz nazkatuta bukatu duen jendea denok ezagutzen dugu, musika irakaskuntzarekin izandako harreman txarragatik. Ume batentzat musikak gozamina izan beharko lukeela eta ez sufrimendua, eta horretan hobetzen ari direla dio Aritz Alustizak, trikiti irakasle Bergarako musika eskolan. Musika eskoletako irakaskuntza trantsizio fasean ikusten du: "Lehen musika matematika bailtzen ematen zen, eta orain metodologia berriak probatzen ari gara, eduki ezberdinak. Baina ez zaio ematen behar bezalako inportantzia sormena lantzeari". Horregatik, berak sormena lantzeko ariketak egiten ditu bere klaseetan, ikasleekin batera gauza berriak sortzen dituzte, irudimenarekin eta jolasarekin jokatzeko, "ez dadila izan 'hemen duzu partitura eta jo'". Teknologia ere asko erabiltzen du, gaur egun abesti bat tonuz aldatu dezakezulako klik bakarrarekin, eta ikaslea grabatu, edo basea jarri eta horren gainetik ikasleak eta irakasleak trikitia jo, "eta hori asko gustatzen zaie". Haur bakoitza ezberdina da, interes ezberdinak ditu, eta inprobisazioa oso presente dago klasean: "Beldurrik gabe inprobisatu behar da gainera; nire pedagogia nagusia horixe da, probatu, probatu eta probatu".

Garbi du Alustizak: kultura musikala barneratzea da garrantzitsuena, eta horretarako, ikasleen musika heziketa ezin da klaseko lau paretetara mugatu, "hori baino garrantzitsuagoa da kontzertuak entzuterako joatea, musikariak eta euren esperientziak aurrez aurre eza-gutzea, musikaz gozatzea". Etxean ere asko egin daitekeela, alegia.

Kontserbatorioetan ere, aldatu egin da plangintza eta batez ere lengoia musikalari eragin dio (solfeo zenari), bost urtetik hamarrera pasa da, didaktikoagoa da, curriculumak berak beste era bateko ikasgaiak eskaintzen ditu... baina kontserbatorioak bere baitan duen eginkizuna profesionalizaziorantzko bidea bermatzea dela eta horrek gutxieneko batzuk exijitu beharra dakarrela ere gogoratu digu Itziar Beitia piano irakasleak, hezkuntza formalago bat. "Beste gauza bat da ikasgelan zer gertatzen den, irakasle bakoitzak bere metodologia, moduak eta pedagogia dauzkalako, eta iruditzen zait ez dela lehen bezain zurrina, gaur egun beste estrategia eta erreminta batzuk ditugula eskura". Pianoko klaseetan, Beitia gustatzen zaio teknika eta zehaztasuna lantzea, konpromisoa eta ikasketekiko erantzukizuna eskatzea ikasleei, baina alde espresiboari ere garrantzia ematen dio, emozionalki eta musikalki bibentziala den ekarpena egin nahi dio ikasleari, musikarekiko zaletasuna garatu dezan. "Ikaslearen arabera



Aritz Alustiza trikiti irakaslearen hitzetan, "lehen musika matematika bailtzen ematen zen, eta orain metodologia berriak probatzen ari gara, eduki ezberdinak. Baina ez zaio ematen behar bezalako inportantzia sormena lantzeari".

izaten da saioa, erreperitorioa aukeratzeko garaian, harekin hitz egiterakoan, ikaslearen egoera pertsonala ere kontuan hartuz". Musikak denbora eta konpromiso aldetik lan pertsonal handia eskatzen du, konstantzia, eta beti ez da erraza, dio Beitia: "Segituan sumatzen duzu zein ikasle datorren gustura eta zein gurasoen nahiak derrigortuta. Baina batzuetan ere gertatzen da eskolak hartzen hastea oso ondo jakin gabe atsegin duten, eta ezagutu eta kontrolatu ahal pixkanaka gero eta gehiago gustatzea. Motibazioak zerikusi handia du bakoitzak lortzen dituen aurrerapekin, eta gauza txikiak lortzea motibatzeke modu ona da. Guk ere erronka txikiak jartzen dizkiegu, gaintitu ditzaten eta gustura senti daitezen. Gaur egun ohituta gaude emaitza azkarretara, jakia mikrouhinean sartu eta bost minututan jan ahal izatera, eta musika ikasketek beste tempo bat dute, beste konstantzia bat, hortik erronka txikien inportantzia, epe luzera planteatutako helburuetara ailegatzeko".

kontzertu didaktiko, musikaren aste eta antzekoetara joatearen garrantzia.


Belarria lantzea, horixe gakoa, Joseba Tapia musikariaren arabera. Errepikapena eta probaren bidetik, belarria lantzean indarra jarriko duen metodologia defendatzen du musika heziketarako. Abiapuntu horretatik, ikasleari autonomia ematearen aldekoa da, belarriak berak eramango duelako haurra/gaztea inizatiba propioz musikan sakontzera eta ikastera, partiturari lotu beharrik gabe.

Dalcroze erritmika, gorputzak senti dezala musika

Musika irakasteko dauden aukera interesgarrien isla da Dalcroze erritmika. Beñat Rallak Genevan ikasi zuen metodologia hau, eta Euskal Herriko ikas-tetxeetan ematen duen bakarretakoa da, nahiz eta beste herrialde ugartan hamarkadak daramatzaten berau aplikatzen. Musika eta mugimendua uztartzean datza, gorputza elementu zentral bihurtzen da eta musikaren eragina

ren arabera gorputzak ekintzak burutu behar ditu, espazioa kudeatuz, elementu osagarriak kudeatuz (izan daitezke pilotak, uztaiak, fularrak, panderoak...) eta besteekin elkarlanean. Mahai eta aulkiak baztertu, espazio zabala hartu, eta gorputzaren bidez musika biziaraztea, gure gorputzak musika barneratu eta nolabait gorputzea da xedea, modu dinamiko eta ludikoan.

Eta nola egiten da hori? Irakasleak zuzeneko musika sortuko du, pianoa joaz



Teknologiaren bilakaera eragin izugarria izan du. Ordenagailuko musikogramak, adibidez, asko erabiltzen dira (irudi bidezko partituras, edo istorio bat osatzen dutenak). Marrazkian, Beethovenen 6. sinfonia.

adibidez, eta landu nahi duen musika elementuaren (zelula erritmikoak, tonalitateak, tempoak, piano eta forteak...) eta ikasleen parte-hartzearen arabera inprobisatuko du. Oinez hasi eta irakasleak jotzen duen musikara pausoa egokituko du haurrak, mantsotuz, azkartuz, isiluneetan geldituz... edo erritmoa lantzeko hiru balore hartu (beltza, zuria, kortxea) eta bakoitzari funtzio bat emango diote: aurreraka ibiltzea, atzeraka, alboz; edo konbinazio ezberdinak egingo dituzte, esku eta oinekin, ezker eta eskuin... edota konpasen zentzua barneratzeko ariketa asko egin daitezke pilota bat elkarri pasaz. Proporzioak lantzeko, eskuekin beltzak egin bitartean hankekin zuriak edo kortxeak irudikatuko dituzte, aldi berean. Erritmoa bakarrik ez, gorputzaren jarreraren ere eragiten du musikak, eta entzuten dutenaren arabera uzurtu edo ireki egingo dute gorputza, animalia bat edo bestea imitatuko dute, "galderak" planteatu eta gorputzaren bidez erantzungo dituzte, askatasunez, edota espazioarekin jokatuko: musika aldaketekin batera, taldean erreakzionatu behar dute, gelako mutur batera joanez, edo espazioan zabalduz eta dispersatuz, edo bat-batean elkartuz eta batuz.

Azken finean, azaldu digu Rallak, solfeo tradizionalak musika deskodifikatu egiten du (hau kortxea bat da, hau fusa bat...), hasieratik da kontzeptuala eta kognitiboa; eta Dalcroze erritmikan, al-

derantzizkoa da prozesua: abstrakzioa egin aurretik musika sentitu eta bizi dezatela haur eta gazteek, gero horri zentzua emango diote, baina aurretik gorputzak ulertu du musika, barneratu du, eta prest dago hori guztia intelektualizatzeko, lengoaia musikaleran eraman eta teorikoki finkatzeko. "Horrez gain, norberaren gorputza, mugak eta aukerak ezagutzeko modua ere bada, lateralitatea lantzekoa, gure gorputza armonian jartzekoa; desplazamendua eta espazioa kudeatzeko gaitasuna hartzen dute, eta psikomotrizitate globala, partziala (besoak) eta fina (hatzak) jorratzen dute, baita koordinazioa ere, memoria, sormena, inprobisatzeko ahalmena..."

Ume txikiek bata bestearen atzetik ibiltzeko edo borobilak osatzeko joera dutela azaldu digu, eta aurreko ikasturtean, hiru hilabete inguruko lanketaren ostean, 4-5 urteko umeak bakoitzak bere ibilbidea asumitzea lortu zuela, "eta hori gauza handia da ikasleen autonomiarako. Lehenengo egunean denak erdi-lotsatuta borobilean egotetik, ikasleak bere burua inoren menpe eta liderri jarraitu gabe ikustea, musikaren bidez garapen integralerako egindako lorpena da". Ongi ibiltzeko, gorputza armonian jartzea eta gainetik hainbat beldur kentzea omen da bidea. "Norberak bere gorpuzkera eta ibiltzeko modua onartu behar ditu, eta konturatzen zara 10 urterekin batzuek, izan lotsagatik

» **BEÑAT RALLA, MUSIKA IRAKASLEA:**
"10 urterekin batzuek, lotsagatik edo autonomia faltagatik, ez dakite ibiltzen. Erritmo bat jarri eta ez dira gai musika jarraituz oinez ibiltzeko; horri nola hasiko natzaio ez-dakit-zein erritmo berezi azaltzen, oinarritzkoena ere ez dauka-eta?"

izan autonomia faltagatik, ez dakitela ibiltzen. Oinarritzko erritmo bat jarri eta ez dira gai musika jarraituz oinez ibiltzeko; horri nola hasiko natzaio ez-dakit-zein erritmo berezi azaltzen, oinarritzkoena ere ez dauka-eta? 4 urtekoekin eta 12koekin, batzuetan gauza berdinak landu behar ditut biekin, aurretik ez delako halakoetan indarra jarri. Horregatik du hain ikuspegi aberatsa Dalcrozek".

Gaurko ikastordua amaitu aurretik, etxerako lanak ere eman dizkigute elkarrizketatuek: etxean haurrek -gurasoek- musika gehiago entzun dezatela, gehiago abestu, musikarekin jolastu, eta kontzertuetara joan: "Ahal den neurrian, bozgorailuetatik harago kultura zuzeneko formatuetan kontsumitu, eta ahalik eta formaturik anitzenetan". ■

Marije

Arropa denda

Etxebeite, 3 · Usurbil

943 361 106

www.facebook.com/marijearropadenda

"SOFAN, GAZTA PINTXOA JATEN, ESATEN DUGUN BERDINA BOTATZEN DUGU AGERTOKIAN"

Rap, futbol, reggae, antifaxismoa, dub, Andaluziako harrotasuna, dancehall eta flow, flow handia. Abel Azconak baino ostia gehiago partitzen dute, irribarrea galdu barik. Ideiak kalean jasotzen dituzten bezala argitaratu dituzte zazpi disko: libre eta denen eskura. Nork esan zuen ezin dela dantzatu zeure buruari galdetu bitartean "Non dago sekreta?" –beren kantarik ezagunena–. La Tacitako Trenchtowndik, Fundación de Raperos Atípicos de Cádiz (F.R.A.C.) eta Karim, abeslaria, mikrofonoan da.



Axier Lopez

@axierL

Raperoak zarete, baina aratusteekin lotura handia duen La Viña auzokoak izateak eragina izango du.

Lehen beti esaten genuen rap, reggae eta Cádizko guasa. Batzuek diote rapa, aratustea, reggae eta ez dakit zer gehiago egiten dugula. Guretzat etiketa denak ongi etorriak. Chirigota ere gustatzen zaigu, hori iraingarritzat erabiltzen duen jendea dagoelako.

Iraina?

Ez dakit, espainolen kontuak dira.

Gaizki ikusita al dago?

Ez, *chirigota* ez delako batere serioa eta noski, guk ez dugu holakoak izateko asmorik. Seriotzat hartzen bagaituzte, zerbait gaizki doan seinale.

Kaleko chirigota izango da zuen gustukoagoa.

Bai, baina ez dugu *chirigota*ren erritmoa erabiltzen. Musikalki, nolabait, egiten duguna da erromantze-dub edo *dubman-cero GaditanceHall* (barreak). Aratustee-tako modalitate bat erromantze cadiztarra da. Oinarria ondokoa da: pertsona batek, umorez eta errimari jarraiki, bu-rutik pasatzen zaion guztia errezipitatzea/ botatzea. Ezin egokiagoa guretzat.

Barre asko, adarra jo ezker-eskuin, baina egurra zuzen partitzen duzue.

Zuzen ala zeharka. Sofan, gazta pintxoa jaten, esaten dugun berdina botatzen dugu agertokian ere. Bateragarria da.

Non utzi dituzue urrezko kateak, biserak, letra matxistak ...?

Guk hasiera-hasieratik arnegatu dugu rapaz. Ez raperoengatik, gu jatorrizko raparen zaleak gara eta. Rapari eta raperoei ezarri dizkieten estereotipoei uko egiten diegu. Zeharo nekagarriak dira. Eta gainera hainbeste bisera eduki behar izateak garbigailuaren erdia okupatzen du.

Noiz sinatuko duzue Sonyrekin eta Primavera Sounden jo?

Gaur egun ordaintzen badidate, baietz esango nuke e! Nik ez nuen nahi, baina zuek behartu nauzue (barreak). Hemen ematen du agertokira igotzeagatik pribilegiatua zarela. Gizarte segurantzian alta hartzeko edo soldata jasotzeko eskubiderik ez dugula dirudi. Ez naiz ari prefabrikatutako talde horiek jasotzen dituzten 10.000 euroko kaxet supergizenduez. Soldata bat, besterik gabe. Zerbizariak kobratzen duten bezala, jaso bezate zerbait musikariek, teknikariek...

Gaur egun ere ezinbestekoa dirudi nork bere bidea bilatu beharrak.

Bizimodua ateratzea eta nahi duguna esatea uztartzen saiatzen gara. Gurea plastifikatzen ez den bitartean, aurrera. FRACek ez du zentzurik landutako diskurtsoa edukiz gero, bat-batekoa izan behar du. Gu mugimendu sozialetan sortu gara, taldearen lehen segundotik aurrera gure eszena diseinatu behar izan genuen. Artean 20 urte genituen eta Teofilaren [20 urtez Cádizko alkatea izan dena, PPkoa] garai onenak ziren, beraz egin kontu zer aukera genuen jotzeko. Egoerak berak irakatsi zigun autogestio-natzen, gauzak dirurik gabe egiten eta espazioak lortzen. Handik gutxira 20-30 musika talde ginen, gure eszena propioa osatu genuen eta eszena ofizialak baino jende gehiago mugitzen genuen.

Zuzeneko musikaren aldeko Cádizko plattformaren parte zarete.

Argi ikusi genuenean Teofila tabako bila joango zela, batu ginen gobernu berriari errazteko jarraitu beharreko ildo, zuzeneko musikari dagokionez. Askoren artean komunean jarri ditugu jazarpenarekin edo legediarekin lotutako arazo nagusiak. Lehengo udalaren kontrolpean ez zen zirkuitu oro hil zuten. "Nirekin

“Gure historia propioa dugu, gure kultura, mugiroa, hizkera, ekiteko eta pentsatzeko era, baita gure errepresio propioa ere”

“Nahitaez grazioso izan behar duen andaluziarraren estereotipo super-markatuek lotsagorritu egiten naute”



zaude ala polizia bidaliko dizut”, isunak jarri dituzte, lagun asko atxilotu dute eta gainera, okerrenak ginela leporatzen ziguten, hiriko zaborra. Gu ez gara hiriko mozkorrak eta holakoak. Tira, baten bat badago. Baina legezkoa da, ezta?

Nola eramaten duzue “aldaketa”?

Udaleko aldaketa garrantzitsua da guretzat. Ez da funtsezkoena, egiazko lana dagoelako kalean, kolektiboetan, tabernetan, jendearengan berarengan. Egun-go alkatea [José María González ‘Kichi’, Podemos] musikaria da. Urte asko daramatza oso letra *kañeroa* duen gure auzoko konpartsa batean. Poza ematen du kalean berarekin topatzeak, pistoladunez inguratuta egon gabe. Lehen bizkartzaina ikusten zenuen aurrena eta atzetik Teofila; aberaskumeentzako merkataritza-kaleetan, jakina.

Europar langabezia mailarik altuena duen zonaldeetako bat da Cádiz, %40tik gorakoa.

Cádizeko egoera “ona” –iruzurra izanik ere– zenean, langabezia ez zen inoiz %25etik behera jaitsi. Krisia beste koska bat gehiago besterik ez zen izan, baina ez beste leku askotan izan zen zartakoa. 1990eko hamarkadan gertatu zen he-

mengo industriaren gainbehera, ontzioen deslokalizazioak-eta. Beraz, krisia etorri zenerako Cádizko jendea ohituta zegoen. Ordutik hona, turismoari emanda gaizki bizitzen saiatu da Cádiz. Bost izarreko turismoa sustatzen saiatu dira, egiatan bi izarreko hiria izanik. Plantak egiten, itxurak bizi izan gaitu. Berbarako, hemen ohikoa da ostalaritzan lanaldi osoz lan eginda ere lanaldi erdian egotea alta emanda. Eta pentsatuko du gainera, zortekoa ni, alta emanda nagoelako!

Baina errua zuena da.

Nola ez ba! Egunero potrojjorran gaude, inauterietan abesten eta PER (Landa eremuetarako diru-laguntza) kobratzen dugu lurrik ez badugu ere.

Zer izango ote ginen estereotiporik gabe.

Nahitaez grazioso izan behar duen andaluziarraren estereotipo super-markatuekin datozkigu orain telebistan. Malezia hori, batez ere cadiztarrena, muturreko beharretik dator, hain zuzen. Eta zentzu bikoitzaz mintzatzea, berdin. Urte luzez zentsura handia izan da hemen eta hori garatu eta txertatu da musikan eta Cádizko hizkeran. Horixe da Cádizko egiazko esentzia. Telebistan baboarena egiten ateratzeak eta horrek denak ez du



“Relaxing Cup of Patá en er Pesho”

Crowdfunding bidez kaleratu duten azken diskoa www.rescatafrac.com webgunean deskargatu daiteke.

inolako zerikusirik. Guztiz alderantzizkoa da. Lotsagorritu egiten nau.

Basamortuan oihuka aritzearen antzekoa irudituko zaio bati baino gehiagori *Andalusía Nación* abestea.

Ba, ez pentsa! Herrietan beti ezagutu gaituzte abesti, kontu eta mugimendu horregatik. Noski, ondo dakigu non gauden eta zer giro dagoen. Nire ustez independentzia ez da lehentasunezkoa Andalusian. Gurea ez da bandera edo muga kontua. Andaluziar gehiago daude kanpoan hemen baino. Nortasuna aldarrikatzeaz ari gara. Gure historia propioa dugula, gure kultura, gure mugiroa, gure hizkera, gure ekiteko eta pentsatzeko era eta, inkluso, gure errepresio propioa. ■


KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Biluztasunaren zikinkeria aldarri



Amaia Alvarez Uribe



X hil da

ALAINE AGIRRE

Elkar, 2015

Bizitza, heriotza, maitasuna eta literatura dira liburu honen ardatz nagusiak. Jainko paganoa dago orrion atzean bere maiteari, X-i, bizitza kentzen eta ematen. Mendebaldeko kulturen hamaika aldiz agertu zaigun Eros eta Thanatosen arteko tira-bira agertzen zaigu hemen berrituta.

Azalean eskaintzen digu protagonistak bere bihotza, edo X-en bihotza, nondik begiratzen den. Alde batetik narrazio autobiografikoaren bidez bere burua biluzten du, barruko desira eta munstroak erakusten dizkigu. Beste alde batetik bere maitatuari buruz hitz egiten digu, bera galtzea zer izango litzatekeen adieraziz, min gorriz.

Lan honetan hausnarketarako aukera ematen zaigu, heriotzari nola egiten diogu aurre, maite dugunaren galerak zer dakarren, doluaren prozesua nolakoa den, abandonua edota bakardadearen kudeaketa zelan egin daitekeen. Eta horrekin batera egungo harreman motak auzitan jartzen ditu muturreraino eramanez fantasia katastrofikoaren bidez. Pentsatuz, imajinatuz, zoratu gaitezke, obsesionatu, jelsiak jota amaitu. Zer da maitasuna? Nola bizi dugu? Zer ematen di(o)gu? Nekea, errua, nazka, beldurra, iluntasuna, menpekotasuna, sumisia, autoanulazioa, sufrimendua... Hori guztia ere bai, ezta?

Maitasuna pasio eta obsesio gisa bizi dituen protagonistak bi idazle aipatzen ditu: Marguerite Duras eta Annie Ernaux, eta, bereziki, inplizituki, haien *Maitalea* eta *Pasio hutsa* liburuak aitortzen ditu iturri eta inspirazio, lan hauetan oinarriturik "sutsuki maitatzea" berarentzat zer den kontatzen digulako liburu honetan. Gainera, maitearen

heriotzarekin, "maitasunaren hilezkortasuna" ere ezbaian jartzeko aukera ematen du, "maitasun erromantikoaren mitoa" agerian utziz nahi duenarentzat.

Liburuak 70 orri behar ditu, ez 700, modu trinko eta mamitsuan aipatutakoak mahai gainean paratzeko. Baina ez da hori bakarrik bertan topatuko duguna, egileak idazteari buruz uste duena ere agertuko zaigu. Berarentzat barrukoa askatzea da, bizitza fikzionalatzea, literatura bihurtutako auto-analisisa egitea. Modu horretan, besteen beldur eta mamuekin bat egin nahi du, bizitzak eragindako zauriei buruz idazteko beharra sentitzean horri bide eman eta paperean ipintzen du irakurlearengana hurbilduz, plazaratu berri den idazle baten hasierako "asmoen adierazpena" eginez.

Bere opera prima izan zen *Odol mamituak* (2014) eta jarraian etorri da *X hil da* (2015) "manifestua". Larru-azala gorritz jantziz euskal letretan. Biluzik eta zikin agertzeko aldarri egiten. Ea zer datorren jarraian. Gu zain izango gaitu. ■



» TELEGRAMA

21. Paraleloan saioa Bilboko Kafe Antzokian: Rezzett eta Privacyrekin musika elektronikoaren zaleek urtarrilaren 22tik 23rako gauerdian dute zita *STOP* Bidasoaldea, musika arraro bezain interesgarriak ekoizteko gai den eskualde hori, bi talde ezin interesgarriagoren kontzertuaren lekuko izango da hilaren 23an: **Sacco** eta **Akau-zazte** Psilocybenea aretoan *STOP* Ezagutzen dituzu Bermeoko **Nuntxaku** gauak? Ez? Ba bada ordua: urtarrilak 24, domeka, **Cobalt Cranes** Los Angelesko taldearen kontzertua ikusteko aukera duzu.

» MUSIKA

Zutik eustea, garaipena



Iker Barandiaran



Garaitu ez gaituztelako

IHESKIDE

Mauka, 2015

Elorrioko talde honek ibilbide irmoa egiten dihardu bigarren milurteko hasieratik, eta ez du inoiz oztopoen aurrean atzerapausorik egin. Punk-rock errebeldea da hasieratik, Ihesbide izena zutenetik, taldekideek aukeratutako erreferentzia edo leloa. Hain zuzen ere, Euskal Herriak jasaten duen zapalkuntza egoera gordin eta krudela sufritzen duten gazteak direla aitortu dute beti, eta musika zaleak diren heinean hori baliatzen dutela beraien eran defendatu eta borrokatzeko.

Diskotik diskora, proposamena sendotzen eta borobiltzen joan da taldea, nolabait ukitu bereizgarria lortuz, eta urtez urte ehunka jarraitzaile batuz. Taldekide bat espetxeratu zutenean taldea kolokan egon bazen ere, beste abeslari batzuen laguntzarekin Ihesbidetik Iheskidera izena aldatzeko bidea egin zuten. Lan hartan Oi!-ak eta 77ko punkak pisua bazuen ere, Eskandinaviako gitarra rockeroak eta sasoi bateko MCDren antzeko rock-and-rolla ere presente zeuden. Gerora, ... *irabazi arte* diskoan, Tronpi taldekidea bueltan zela, aurretik aipatutako estiloei hard-rocka eta Alemaniako punkaren berezko melodia malenkoniatsua batu zizkieten. Hitzetan iraultza, espetxea, lobby jeltzalea, gose greba, sakabanaketa eta maitasuna izan zituzten hizpide.

Izan ere, taldearen ezaugarri nagusiengakoa da hitzak zuzenak direla, tinko uzten zaituztenak eta inork gutxik bezala auto-zentsurarik ez dutenak, ausartak. Lan horri jarraitu zion *Borrokak darrai* diskoak punk-rock melodikoan jarri zituen indarrak, Oi!-aren, hard-rockaren eta punk-rock amorratuaren printzak ere jasota. Eta han bildu zituzten *Izenez eta izanez* kantu ia biluzi bezain martziala, Irlandako errepublikarrek bidean galdutakoei egin ohi dieten pareko omeneko kanta Arkaitz Bellon herrikide eta lagunari, eta Kolonbiako FARC-EPri abestutako *Orgullo fariano* babes hunkigarria, besteak beste.

Eskuetan daukaguna, baina, *Garaitu ez gaituztelako* da, beti ere Euskal Herrian bizi dugun uneko egoerari so eta erne. Gainera, musika sortzaile gisa pauso erraldoia eman dute oraingoan: kantuek kutsu jantziagoa dute, pisutsuagoa eta irmoagoa; ondo kudeatutako malenkonía eta aurrera begiratzeko ausardiarena. Punk-rocka da ardatza, batzuetan melodikoagoa, beste batzuetan amorratuagoa, eta tarteka Social Distortion-en dotorezia ekarri dit gogorra. Bada "kaleko mobidatik" lagun artean abesteko horietakorik, eta baita ere hard-rockaren parekorik. Eta guztien artean nabarmenduko nukeen moduko *Ezerezaren espetxeratzea* itzelezko danbategoa eta abesti erraldoia, Anestesia taldeko Ibon abeslariak are eta gehiago borobildu duena. ■



Nina Simone guztiak

THE AMAZING NINA SIMONE

Dock of the Bay Donostiako Musika
Dokumentalen Nazioarteko Jaialdiaren 9. edizioan
(urtarrilaren 9tik 16ra) ikusia.



Miren Manias
@beavis

Musikaz harago, Nina Simone (AEB, 1933 – 2003, Frantzia) abeslari eta piano jotzailea ezagutzeko aukera eskaintzen duen dokumentala da *The Amazing Nina Simone* (2015). Jeff L. Lieberman (New York, 1947) zinemagile estatubatuarrek zuzendutako lana da.

Liebermanen honako pieza, musikariaren gaineko lan biografikoa da. Eunice Kathleen Waymon-ek (jatorrizko izena) sortutako musikari eta osatutako kantuen hitzei azalpena eranstean dienez, ikus-entzunezkoa, alegia. AEBetako arrazakeria eta esklabotza salatzeke, eskubide zibilak aldarrikatzeko, bai eta barruan zeramatzan mamu pertsonalak uxatzeko, musika erabili zuen emakume indartsua eta aldi berean hauskorra izan zen Simone. Lan honek errepaso zintzoa egiten dio haren bizitzari, inguruan izan zituen hainbat lagun eta senideren adierazpenen bitartez, pertsonaiaren hastapenetatik beheraldi pertsonaleraino.

Nork ez ditu ezagutzen haren *My Baby Just Cares for Me*, *I Put A Spell on You* edo



I Love You, *Porgy* kantuek? Ordea, gutxitan erreparatzen zaio kantuen sortze prozesuari eta berau bultzatzen duten faktoreei. Hau da, sortzailearen bizipen pertsonalei, haren egoera emozionalari edota ideologiari. Horregatik, halako dokumentalek aukera eskaintzen dute sartzeko pertsonaiaren barrenean eta ulertzeko sorkuntza horren jatorria, bai eta hark gordetako isiltasuna ere. Simonek txikitatik nahi izan zuen piano jotzaile klasikoa bilakatu eta musika erabili pairatutako arrazakeri ekin tzak salatzeke. Dokumentalean dioenez, beltz koloreko azala izate hutsagatik ukatu egin zieten haren gurasoei alabaren errezitaldi batean lehenengo ilaran jesartzeko aukera. Areago, pasarte horrek betiko markatuko zuen Simoneren nortasun konplikatuak.

Industria munduan ezagunak ziren haren etengabeko umore aldaketak eta jende askok aitortu zuen hari izandako beldurra: *"She is a bit moody"*. Bere anaia Sam Waymon-ek azaltzen due-

nez, askotariko nortasunak biltzen ziotuen emakumea izan zen. Musikariaren neskalgun izandako Marie-Christine Dunham Pratt-ek, bestetik, dio ez zegoela pertsonarik munduan denbora luzez haren aldamenean iraungo zukeenik: "Energia gehiegi zuen Ninak". Simonek bere burua akatsez betea aurkezten zuen eta erantsi bere erronka nagusia zela jainkoak emandako talentu berezi hori maneiatzea. Beharbada, etsai bilakatu zitzaion doaia.


Ezkundu eta alaba bat izateak ez zion ustezko zoriontasuna ekarri. Askotan publikoki adierazi zuen zoriontsuago izan zitekeela eta gertukoekin mintzatu bere buruaz beste egiteaz. Zoritzarrez, itxurazko izaera indartsu horren azpian hauskortasunak agindu eta gaixotasun mentala garatu zuen azken urteetan.

Dokumentalak erritmo aldetik une ahulak baditu ere, Simoneren zoritxarreko bizipenek harrapatuta, gozagarria da artistaren nortasun guztietara hurbiltzea. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama

Gaia: Nafarroako Erriberako herriak



Ezker-eskuin:


1. Hiltzaile. Agintari islamdarra. Iruñetik 80 kilometrora dagoen herri honetan Sendaviva Abentura eta Dibertsio Parkea dago. 2. Historia ikertzen duena. Artaburuko ale bakoitza. 3. Zezen zikiratu. Norat atzizkia. Idolo. 4. Zuberoako mendia. Hura bera. 5. Nauru irlako biztanlea. 6. Arabazozo. 7. Musika-instrumentua, bi zotzez jotzen dena. Edateko. 8. Ohelagun, maitale. Urtarril. 9. Suan. Bizkaiko udalerria. Nafarroako bigarren hiria luze-zabalerari eta populazioari begira, eta Erriberako hirigune nagusia. Keiles ibaia Ebrora isurtzen da bertan. 10. Garai, denbora. Landare mota, zurtoin eta hostoetan esne modukoa duena. Usteak, ikuspuntuak.

Goitik behera:

1. Aleak haustu. Errioxako mugan eta Ebroren ertzean kokatua dagoen herri hau oso ezaguna da jatorri izendapena daukaten pikillo piperrak direla eta. 2. Nori atzizkia. Eskuaren barneko alde. 3. Artsenikoaren sinboloa. Ugari. 4. Idi hitz-elkarketan. Informazio unitate. 5. Lotan. Olerki lirikoak. 6. Gaixo. Zeinena. 7. Zezen zikiratua. 8. Tamaina, neurri. 9. Aluminioaren sinbolo kimikoa. Argonaren sinboloa. 10. Abereen gorputza biltzen duen azal. 11. Zerbait irabazteko bide. 12. Alhama ibaiaren ertzean kokatua dagoen herri hau ezaguna da bere ur termaleko bainuetxeagatik. Gustavo Adolfo Bécquer poeta espainiarrak ostatu hartu zuen bertan. Pinu mota. 13. Ugaztun marraduna. 14. Begirune. 15. Pilota. 16. Ardi hitz-elkarketan. 17. Galioaren sinboloa. Haritz-baso. 18. Gorputz solido bat likido bihurtu. Alde!, ospa! 19. Etorri aditzaren infinitiboa. Euskal fonema. 20. Eguna. Omen. 21. ... Sardui, abeslaria. Egiptoko jainkoa. 22. Semetzakoak.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Narrazio labur.
2. Zati, atal.
3. Erraz urtzen dena.
4. Erabat lasterka.
5. Neu, nihaur.




Soluzioak



5x5:
1. Ipuin
2. Parte
3. Urkor
4. Itoka
5. Neru

Goitik behera: 1. Eho, Lodosa. 2. Ri, Abur. 3. As, Naro. Kardabera, Iriztiak.
8. Ohaide, Ilbela. 9. Surtan, Derio, Tutera. 10. Aro, Huraxe. 5. Nauruan. 6. Zozabar. 7. Danboy, Edart. 2. Historialari, Artale. 3. Idi, Rat, Totem. 4. Izarbe, 4. It, Bit. 5. Lo, Odak. 6. Eri, Norena. 7. Idia. 8. Kaizu. 9. Al, Ar. 10. Larru. 11. Irabazpide. 12. Fitero, Ler. 13. Zebra. 14. Adel. 15. Baloi. 16. Art. 17. Ga, Haritz. 18. Urtu, Ur. 19. Etor. 20. Data, El. 21. Alex, Ra. 22. Semeordeak.

Ramón Andrés. Beti minetan



Zaila da hitz gutxitan Ramón Andrésen ibilbidea laburtzea. Besteren artean, idatzi izan du musikaz eta literaturaz, artikuluak, hogeitik gora liburu. Azkena, *Sempers dolens. Historia del suicidio en Occidente*, 500 orrialdeko liburutzarra. Motibazio pertsonal fermua izan du langintza horretarako 2015eko Vianako Printzea saridunak.

“Suizidio hitzak berak karga ideologiko handia du”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: ORIOL CLAVERA

Heriotza

“Ez bakarrik suizidioari, heriotzari bizkarra emanez bizi gara. Erdi Aroan, eta geroago ere bai, hilerriak herriaren erdian zeuden, hildakoak elizan edo eliza ondoan lurperatzen ziren. Gogora datorkit Ainhoako hilerria. Arrazoiak hilerriak urrutiratu zituen, leku apartatuetara eraman. Eta Modernitateak hilerri asko hiritik kanpo eraman ondoren, gaur egun ez dakizu tanatorio baten aurrean zauden edo banku bateko bulegoan, hain da diseinua hotsa, aseptikoa dena. Heriotza gauza naturalagoztat izan dugu; baina orain ezustean harrapatzen gaitu, kotoi artean bizi baikara, errealtateari muzin eginez”.

Suizidioari buruzko liburu bat. Ez da gai samurra.

Jatorri urruna du: lagun min batek bere buruaz beste egin zuen, biok genituen 27 urte. Durdutzaturik geratu nintzen, eta materiala biltzen hasi. Idatzi ahal, bizitzari buruzko liburu bilakatu da, ez heriotzari buruzkoa. Zer pentsatzen dugu heriotzaz; baina ispilu efektu gisa, zer da existentzia. Mentalitateen historia bat da azkenerako, borondatezko heriotzaren bitartez ikusia.

Suizidioa tabua dela esaten da, baina liburuko erreferentzia, irakurketa, bibliografia guztiek kontraesanetan jartzen dute ideia hori.

Gaur egunean ere tabua da, askotan istripuztat pasarazten da, ez bakarrik familia baten intimitatea babesteko: desohorea balitz bezala bizi dugu, desertzioa balitz bezala. Isilarazi bai, baina, ere berean, asko hitz egin da suizidioaz.

Historian zehar suizidioaren gaineko pertzepzioa asko aldatu da, antzinako herrirentzat ez zen arbuiorako motibo.

Aristotelesek luzaz iraungo duen arra-

zonamendu bat egin zuen: ezin duzu zeure buruaz beste egin, gizarte baten emaitza baitzara; eta ez zara zeurea, komunitatearena baizik. Ideia bera jaso zuen San Agustinek, eta zioen ez zarela zeure buruaren jabe, jainkoarena zarelako. Noski, hori guztia hautsi zen Errenazimenduan, indibiduoak eraiki zenean Europako mentalitate modernoaren arabera: zu zara zeure buruaren jabea, nahi duzuna egin dezakezu. Eta hor sortu zen konfrontazio handia.

Elizak uste zuen suizida deabruak hartua zuela. Medikuntzak jatorri patologikoa duela.

Psikiatria klasikoenak gaixotzat du suizida, ia beti. Foucaultek zioen, jende gaixoa sortzea da helburua: gizarte segurantz bat egoteko, Estatuak zure bizitza egokitzeke, heriotzaren antolamendu bat egiteke. Suizidioen %90ek ezin du jatorri patologikoa izan. Jaspersek zioen, filosofoa zen eta psikiatra. Gainera, ideia oker horrek eraman gaitzake pentsatzera medizina aurre egin diezaiokeela egitan gatazka atabiko bati erantzuten dion fenomenoari.



"Psikiatria klasikoek gaixotzat du suizida, ia beti. Baina suizidioen %90ek ezin du jatorri patologikoa izan".

Suizidio mota ugari dago, beraz. Ez denak berdinak gizartearen aurrean.

Patologia baten ondoriozko suizidiotik, gizartearen onura ekar lezakeen suizidiora. Azken hori, suizidio altruista deitzen dena, nire bizitza besteen alde ematen dut, oso polemikoa izan zen, hain zuzen, Errenazimendutik aurrera. Hasi ziren esaten Kristok bazekiela zertara zihoan, hiltzera zihoala, eta suizida zela; baina ez zen gaitzesten, onartzen zen bere bizia eman zuela jendeagatik.

Biblian, hiltzera doazen suiziden pasarte asko dago.

Eta suizidio altruistak dira. Suizidioaren gainean ezartzen den estigma Judasengandik aurrerakoa da: kontzientziak eragindako harragatik urkatu zuen bere burua. Eta horrek deabruzatu zuen, hainbeste non, Antzinaroan, *mors voluntaria* esapidea existitzen den, zeure eskuz hiltzea, baina XVII. mendean suizidio hitzak asasinatze bat adierazten duen: zeure burua asasinatzen duzu.

Izenak berak karga ideologiko handia hartzen du.

Jendeak bere burua hiltzen jarraitzen du egun, orain milaka urte egiten zuen motibo berberengatik.

Minari bukaera ematea, isolamendua-rekin amaitzea, prekarietateak eta zorritxarrak markatutako bide bati akabua ematea, abandonua, injustizia, lotsa, jazarpena ez jasatea izan daiteke. Edo gerra edota epidemia baten beldurra-ri amore ematea, diagnostiko larri bat baieztatzea, familia galera bat onartze-ko ezintasuna, bortxatua izatea, besteren indiferentzia ez onartzea, ohore mina, asperkizunak inguratuta sentitzea, mundutik kanporatuta, mende-kuagatik hiltzea, funtsean zergatik desagertu nahi den jakin gabe desagertzea.

Beste motibo bat: bada bere bizitzarekin bukatzen duenik, heriotzaren beldurragatik. Blanchotek ondo dio: borondatezko heriotza, beste heriotza ikusteari eginda-

ko ukoa da. Bizitzeko gaitasun eza izan daiteke, edota hiltzekoa. Shakespearek zioen beldur bera ziela bizitzari eta heriotzari. Izurri-urtearen egunkarian azaldu zigun Daniel Defoe: nola izurridunen hilotzak botatzen ziren hobietara joaten zen jendea, kutsatuta ez zegoen jendea, manta batekin, bere burua hobira botatzera. Kutsatzearen beldurrez, aurre hartzen zioten heriotzari. Irudi izugarria da.

Biak bizi baitira batean: bizitzeko borondatea, noski; baina auto-suntsiketarakoa ere bai.

Naturan berean dago norberaren suntsiketarako joera. Freudek oso ondo ikusi zuen. Gizakiak eraiki egiten du, baina hondatu ere bai. Inork ezin digu ukatu gaur gizarte mailako suntsiketa prozesu batean sartuta gaudela. Ikuspuntu moral batetik, zer ardura eskatuko diozu bere buruaz beste egiten duen norbaiti? Bere inguruaren auto-suntsiketa ispilatzen ari da, ez besterik. ■



Donostia 2016ri esker milaka lagunak drogak utz ditzakete

Donostia 2016k bakea, bizikidetza, errespetua eta koloretako piruletak nonahi zabaltzearekin batera, zenbait toxikomanok drogetan bilatzen dituzten efektuak substantzia horiek gabe lortzeko gai dela erakusten hasi da: “Danborra- dan Europar Batasuneko bandera jaso zuten, azidoekin baino gehiago haluzinatu dut”, esplikatu du gazte donostiar batek. “Bidaia” osasungarri horiek laguntzeko asmoz, Udala Kontxako barandilla Coca-Colaren publizitatez betetzea aztertzen ari da, erdialdea zeharkatuko duen metroak eragingo duen flipe ikaragarria iritsi bitartean.



Katalunian gertatzen denari begira bizi zara inbidiak jota? Inigo Urkullu ikuste hutsak siestarako gogoaz pizten dizu? Hasier Arraizen hitz-aspertua hiru polboroi ogi tartean baino lehorrago egiten zaizu? Ez kezkatu, Beranduegi badu konponbide ego- kiaz zuretzat. Euskal KUP (Kamikaze Ulerkor Pantumakazaleak) alderdi berriaren zerrendaburua Euskal Herriko egoera politikoa ezker-eskuin egyptzera dator: **Anna Gabirel**



Patxi López: “Espainia proiektu komuna da”

Ohiturari jarraiki, bere alderdia bozkatuena izan gabe presidentetza bat lortu du Patxi López Beranduegiren lagun handiak. Oraingoan, Espainiako Kongresuko. Bere lehen hitzartzearen ostean esna zirauten diputatuak EAEko lehen- dakari ohiaz paso egin eta nahiago izan dute Podemosekoaren ume txikia besoe-

tan hartu. “Haurra azkarragoa da”, aitortu du ahapeka Cuencako PSOEko kide batek. Kargu berriaz honakoa adierazi du Lopezek: “Esan zidatenean lan honetarako ez zela hizkuntza autonomikorik menperatu behar, ez nuen zalantzarik egin”. Ondoren bere buruari baimena eskatu dio saxofoi solo bat jotzeko.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA

| PAREKIDETASUNA

INGURUMENA

EUSKALTZALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA

INDEPENDENTZIA

DEMOKRAZIA ZUZENA

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA

HERRIEN MUNDUA

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

SEXU ASKAPENA

Atal honetan, herri eragileen lana ezagutarazi eta urtean zehar kaleratutako materiala zozketatuko dugu hilero ARGIAko harpidedunen eta Piztu Ezazu ARGIAren bitartez ekarpen ekonomikoa egiten duzuenon artean.



Parekidetasuna balio ardatzetako bat da ARGIA-n. Feminismoa eta genero ikuspegia gure egunerokotasunean txertatzen ari gara, teoriarik bezain praktikan. Merezki duen bizitzari nahi dugu euskal herritarrentzat eta helburu hori erdigunean jartzen duen komunikazio proiektua gara.

URTARRILEKO ZOZKETAK



Tribial Feminista: ezagutu emakumeen historia (5 mahai-jolas)

Euskadiko Jabetze Eskolak



Bizentaren lumak: sustatu jarrera parekideak (5 solas-jolas)

Elhuyar
bizentarenlumak.elhuyar.eus



Bilgune Feministaren materialarekin: Kamiseta, CD eta DVD edo liburua (3 saski)

Bilgune Feminista
www.bilgunefeminista.eus



Genealogia Feministak liburua eta Emaraun-en harpidetza

Bilgune Feminista
www.bilgunefeminista.eus

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

Online aurrematrikula:
www.hezkuntza.net

gozamenen da elkarrekin **Ikastea**

Aurrematrikula:
urtarrilaren 25etik
otsailaren 5era

**Euskal Eskola
Publikoa**

PERTSONA HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO